Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila
Kirol Zuzendaritza Nagusia
Kirol Zerbitzua

Departamento de Cultura
Dirección General de Deportes
Servicio de Deportes

Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen Zuzendari Nagusiaren urtarrilaren ..8....(e)ko .....4...../2008 Ebazpenaren Eranskina.

Anexo a la Resolución Nº .....4..... /2008, de ..8.... de enero, del Director General de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia.

LEHIAKETAK ANTOLATZEKO ETA EGITEKO ARAUDIA

FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE BALONMANO

BIZKAIKO ESKUBALOI FEDERAZIOA

I. TITULUA. DENBORALDI OFIZIALA

1. artikulua.- Denboraldi ofiziala urte bakoitzeko uztailaren batean hasi eta hurrengo urteko ekainaren 30ean amaituko da.

Nolanahi ere, Bizkaiko Eskubaloi Federazioko Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak, Federazioko Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, denboraldi ofiziala eten, aldatu, luzatu edo laburtzea baimen dezake, ezinbesteko arrazoiak, ezohiko inguruabarrak eta aurretik hartutako kirol-konpromisoak badaude, kasuan kasuko erabakia behar bezala justifikatzen badute, baldin eta erabaki horrek ez badie kalterik eragiten parte-hartzaileek dituzten eskubideei eta aurrerapen nahikoarekin jakinarazten bada.

II. TITULUA. LEHIAKETAK BAIMENTZEA

1. KAPITULUA. LEHIAKETA OFIZIALAK

2. artikulua.- Bizkaiko Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketak hasi baino hamabost (15) egun lehenago gutxienez, Federazioko Lehiaketa Arloak

REGLAMENTO DE RÉGIMEN DE ORGANIZACIÓN Y DESARROLLO DE LAS COMPETICIONES

FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE BALONMANO

BIZKAIKO ESKUBALOI FEDERZIOA

TÍTULO I. TEMPORADA OFICIAL

Artículo 1.- La temporada oficial de juego empezará el primero de julio de cada año y terminará el treinta de junio del año siguiente.

No obstante, el Comité de Competición y Disciplina Deportiva de la Federación Vizcaína de Balonmano / Bizkaiko Eskubaloi Federazioa, a propuesta de su Junta Directiva, podrá autorizar la suspensión, modificación, ampliación o reducción de la temporada oficial de juego en casos de fuerza mayor, circunstancias extraordinarias y compromisos deportivos adquiridos, que así lo justifiquen, siempre que no perjudique derechos adquiridos por los participantes y se comunique con suficiente antelación.

TITULO II. AUTORIZACIÓN DE COMPETICIONES

CAPÍTULO 1º. COMPETICIONES OFICIALES

Artículo 2.- Como mínimo con quince (15) días de antelación al inicio de las competiciones oficiales que organice la F.V.BM./B.E.F., el Área de

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

lehiaketa bakoitzaren oinarriak edo araudia argitaratu behar du eta haien berri eman behar die Euskal Eskubaloi Federazioari eta lehiaketetan parte hartuko duten klubei.

Competiciones deberá publicar y dar a conocer a la Federación Vasca de Balonmano y Clubes participantes las bases o normativa de cada una de ellas.

Oinarriok nahitaez bete behar dira, eta araudi honen arau osagarritzat joko dira.

Dichas bases son de obligado cumplimiento, entendiéndose como normas complementarias al presente Reglamento.

Lehiaketen oinarriak aldatu egin daitezke, aurreko artikuluko bigarren lerroaldean ezartzen denaren arabera.

Las bases de las competiciones podrán ser variadas de conformidad con lo establecido en el párrafo 2º del artículo anterior.

3. artikulua.- Bizkaiko Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketa ofizialek Euskal Eskubaloi Federazioaren aitorpena behar dute, baldin eta lehiaketa horiek autonomia-erkidegoko lehiaketan parte hartzeko sailkapena lortzeko badira edo gerora eraginik badute lehiaketa horietan parte hartuko duen taldeen kopurua zehazteko; lehiaketa bakoitzak dituen eginkizun zehatzak betetzen dituen heinean.

Artículo 3.- Las competiciones oficiales que organice la Federaciones Vizcaína de Balonmano / Bizkaiko Eskubaloi Federazioa y que clasifiquen para participar en las de ámbito autonómico o tengan incidencia posterior para determinar el número de los equipos participantes, deberán ser reconocidas por la Federación Vasca de Balonmano, de cumplirse las funciones específicas de cada competición.

Bizkaiko Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen gainerako lehiaketek ez dute Euskal Eskubaloi Federazioaren aitorpenik behar, eta haien berri emango zaio Lehiaketa Arloari, baina informazioa emateko soilik.

El resto de las competiciones organizadas por las Federación Vizcaína de Balonmano / Bizkaiko Eskubaloi Federazioa no precisarán el reconocimiento de la Federación Vasca de Balonmano, y se notificarán al Área de Competiciones a efectos informativos.

4. artikulua.- Lehiaketa horiek aitorpena jaso dezaten, Bizkaiko Eskubaloi Federazioak horretarako eskabidea, behar bezala beteta, bidali behar dio Euskal Eskubaloi Federazioari (Lehiaketa Arloari), Bizkaiko Federazioak antolatzen dituen lehiaketetako edozein hasi baino hamabost (15) egun lehenago gutxienez.

Artículo 4.- Para que se puedan reconocer dichas competiciones, la F.V.BM./B.E.F. deberá enviar a la Federación Vasca de Balonmano (Área de Competiciones), debidamente cumplimentado impreso de solicitud, con un plazo mínimo de quince (15) días de antelación al comienzo de cualquiera de las competiciones que organicen.

Eskabidearekin batera, lehiaketaren oinarriak eta izango duen egutegia bidali behar dira. Horiez gain, beti agertu behar

Al impreso de solicitud se deberán adjuntar las Bases del Campeonato y el Calendario previsto. Igualmente debe

EUSKO JAURLARITZA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

da Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren idazkari nagusiaren edo baimendutako pertsonaren sinadura.

figurar, en cualquier caso, la firma del Secretario General o persona autorizada de la Federación Vizcaína de Balonmano / Bizkaiko Eskubaloi Federazioa.

Lehiaketa guztien oinarrietan, berriz, lehiaketa egiteko egunak, parte hartuko duten taldeak, lehiaketa nola egingo den, araudia eta sailkatzeko irizpideak agertu behar dira, bai eta lehiaketa nola egingo den argitzeko beharrezkoak diren arau osagarri guztiak ere.

En las Bases de toda competición deben constar las fechas de celebración, los equipos participantes, la fórmula de competición, la Normativa y criterios de clasificación, así como todas las normas complementarias precisas para clarificar el desarrollo previsto del Campeonato.

5. artikulua.- Autonomia-erkidegoko faseetan eragina duten lehiaketen jardunaldi bakoitza amaitu osteko astearen barruan, Euskal Eskubaloi Federazioari (Lehiaketa Arloari) bidali behar zaizkio emaitza eta sailkapen eguneratuak, jokatu diren partiden jatorrizko aktak eta Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordearen bilerako aktaren kopia.

Artículo 5.- Dentro de la semana siguiente a cada jornada de las competiciones que tengan incidencia en las fases de ámbito autonómica, deberán ser remitidas a la Federación Vasca de Balonmano (Área de Competiciones), los resultados y clasificaciones actualizados, actas originales de los encuentros celebrados y copia del Acta de la reunión del Comité de Competición y Disciplina Deportiva.

2. KAPITULUA. KLUBEK ANTOLATUTAKO LAGUNARTEKO NORGEHIAGOKAK

CAPÍTULO 2º. CONFRONTACIONES AMISTOSAS ORGANIZADAS POR CLUBES

6. artikulua.- Klubek baimena eskatu behar diote Bizkaiko Eskubaloi Federazioari lurralde mailako, autonomia-erkidego arteko edo nazioarteko partida, txapelketa edo lehiaketak antolatu ahal izateko. Baimena eskatzeko, inprimaki bat bidali behar dute eta ekitaldia non egingo den adierazi behar dute bertan, eta 4. artikuluan eskatzen diren agiriak bidali behar dituzte eta beharrezkoak diren gainerako izapideak ere egin behar dituzte.

Artículo 6.- Los Clubes tienen la obligación de solicitar autorización a la F.V.BM./B.E.F., para la organización de encuentros, torneos o competiciones amistosas de ámbito territorial, interautonómico o internacional, mediante impreso cursado e informado del lugar donde se celebra el evento, con los documentos y demás trámites necesarios exigidos en el artículo 4.

7. artikulua.- Dena dela, lehiaketa nazioartekoa bada, eskabidea gutxienez ere lehiaketa hasi baino hogeita hamar (30) egun lehenago heldu behar da Bizkaiko Eskubaloi Federazioari, eta horren guztiaren berri emango zaio Bizkaiko Foru Aldundiaren Kirolen

Artículo 7.- No obstante, cuando la competición sea de ámbito internacional, el impreso de solicitud deberá tener entrada en la F.E.BM./B.E.F. con un mínimo de treinta (30) días a la fecha de comienzo, dando vista a la Dirección de Deportes de la Excma. Diputación Foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

Zuzendaritza Nagusiari, dagozkion ondorioetarako.

de Bizkaia a los efectos oportunos.

Edozelan ere, beharrezkoa den baimen ofiziala eskatuta duten lagunarteko partidak edo txapelketak egiten direnean, baimena egon dagoela jakinarazi behar dio Bizkaiko Eskubaloi Federazioak Epaileen Batzorde Teknikoari, partida edo txapelketa horietarako epaileak izendatu ahal ditzan.

En cualquier caso, siempre que se celebren encuentros o torneos amistosos una vez solicitada la correspondiente autorización oficial de celebración de los mismos, la F.V.BM./B.E.F. notificará dicha autorización al Comité Técnico de Árbitros para que pueda efectuar las correspondientes designaciones arbitrales.

Baimen ofiziala nahitaezkoa da Epaileen Batzorde Teknikoak epaileak izenda ditzan; betekizun hori bete gabe epaileek ezin dute partidarik zuzendu.

Será imprescindible la autorización oficial para que el Comité Técnico de Árbitros designe a los colegiados correspondientes, requisito sin el cual ninguno de ellos podrá dirigir encuentro alguno.

8. artikulua.- Kapitulu honetako xedapenak autonomia-erkidego arteko edo nazioarteko lagunarteko partida guztietan ere bete behar dira, nahiz eta partida horiek Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo jokatu.

Artículo 8.- Las disposiciones descritas en el presente capítulo se deberán cumplir asimismo en todos los encuentros amistosos autonómicos e internacionales, celebrados fuera del territorio histórico de Bizkaia.

III. TITULUA.
PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK

TITULO III.
DERECHOS DE PARTICIPACIÓN

1. KAPITULUA.
ALDERDI OROKORRAK

CAPÍTULO 1º.
GENERALIDADES

9. artikulua.- Honako hauek izango dute Bizkaiko Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketa ofizialetan parte hartzeko eskubidea: sailkapenean lortutako postua dela-eta eskubide hori lortu duten taldeak, aurreko denboraldiaren amaierako banaketa linealaren, igoera edo jaitsieren eta lehiaketa bakoitzean parte hartzeko dauden postuen arabera.

Artículo 9.- Adquirirán el derecho de participación en las competiciones oficiales que organiza la F.V.BM./B.E.F., aquellos equipos que por su clasificación se lo hayan adjudicado, según la distribución lineal al final de la temporada anterior, ascensos o descensos y plazas en cada competición.

Lehiaketa ofizialetako igoera-jaitsierak txapelketa bakoitzaren oinarri zehatzetan ezartzen denaren arabera egingo dira.

Los ascensos y descensos en las competiciones oficiales se realizarán de acuerdo a lo que se disponga en las bases específicas de cada campeonato.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA SAILA Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA Dirección de Deportes

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Kirol Zuzendaritza Nagusia
Kirol Zerbitzua
Departamento de Cultura
Dirección General de Deportes
Servicio de Deportes

10. artikulua.- Lortutako sailkapena edo daukaten kategoria dela eta, lurraldeko edo aurretiazko faserik gabe jokatzen diren edozein lehiaketa ofizialetan parte hartzeko eskubidea duten taldeek parte hartzeari uko egin diezaiokete; horretarako, ekainaren 30a baino lehen idazki bat aurkeztu behar diote Bizkaiko Eskubaloi Federazioari. Ukoa egun hori eta gero aurkeztuz gero, epez kanpokotzat joko da eta Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak erabakiko du zer egin, Diziplinazko Araudiaren arabera.

Artículo 10.- Todos los equipos con derecho, en razón de su clasificación o categoría, a tomar parte en cualquier competición oficial, que se juegue sin fases territoriales o previas, podrán renunciar antes del 30 de junio, mediante escrito presentado a la Federación Vizcaína de Balonmano / Bizkaiko Eskubaloi Federazioa. De presentarse la renuncia posteriormente a dicha fecha, se considerará fuera de plazo y será el Comité de Competición y Disciplina Deportiva quien proceda de acuerdo con el Reglamento de Régimen Disciplinario.

11. artikulua.- Klub guztiek estatutuak izan behar dituzte, estatutuok onartuta egon behar dute eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatuta egon behar dute.

Artículo 11.- Todos los Clubes, tendrán que contar con unos Estatutos confeccionados, aprobados e inscritos en el Registro de Asociaciones y Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

12. artikulua.– Izen bera duten talde bik edo talde bereko talde bik ezin dute lehiaketa berean parte hartu; hortaz, klub batek lurraldeko lehiaketetan parte hartzen duten talde bi baditu, beheko kategorian jokatzen duen taldeak ezin du goiko kategoriara igo, nahiz eta sailkapenaren arabera horretarako eskubidea izan, eta sailkapen nagusiak haren atzetik dagoenak hartuko dute igoera-leku hori. Taldea igoerako promoziorako sailkatzen bada ere irizpide bera jarraituko da. Arrazoi bera dela eta, goiko kategorian jokatzen duen taldea, sailkapenaren ondorioz, beheko kategoriara jaitsi beharko balitz, talde bat bakarrik geratu ahal izango da azken kategoria horretan.

Artículo 12.- No se permite la participación de dos o más equipos homónimos o pertenecientes al mismo Club dentro de una misma competición, por tanto, si un Club tiene dos equipos participantes en competiciones territoriales, el equipo que milite en la categoría inmediata inferior no podrá ascender en el caso que le corresponda por su clasificación final, aunque llegara a clasificarse para ello, ocupando su lugar el equipo que le siga en la clasificación general. Igual criterio se seguirá si se clasifica para la promoción de ascenso. Por idéntico motivo, si el equipo que toma parte en la categoría superior tuviese que descender a la inferior por motivo de su clasificación, en esta última categoría solamente podrá permanecer uno.

Beheragoko kategoriarik ez balego, ez litzateke aurreko lerroaldean zehazten dena ezarriko.

En el caso de no existir una categoría inferior, no será de aplicación lo dispuesto en el párrafo precedente.

2. KAPITULUA.
UKO EGITEN DENERAKO IRIZPIDEAK

CAPÍTULO 2º.
CRITERIOS EN CASO DE RENUNCIAS

13. artikulua.- Talde batek denbora eta

Artículo 13.- Cuando un equipo renuncie,

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Servicio de Deportes

moduari dagokionez behar bezala egiten badio uko parte hartzeari, honako hurrenkera hau jarraituko da haren lekua nork hartu behar duen erabakitzeko:

1.- Promozioan —horrelakorik badago— kategoria galdu duen taldea. Talde bik edo gehiagok badute horretarako eskubidea, talde bakoitzak bere txapelketan lortutako azken sailkapenari begiratuko zaio.

2.- Kategoria automatikoki galdu zuen taldea. Talde bik edo gehiagok badute horretarako eskubidea, talde bakoitzak bere txapelketan lortutako azken sailkapenari begiratuko zaio.

3.- Kategorien arabera talde baten baino gehiagotan jokatzen diren lehiaketa ofizialetan, honako irizpide hauek erabiliko dira taldeen banaketa lineala egiteko:

a) Lortutako puntuak, guztira.

b) Aldeko eta kontrako golen arteko alderik handiena.

c) Sartutako gol kopuru handiena.

Taldeek ez badute partida kopuru bera jokatu, koefiziente bat erabiliko da hurrenkera erabakitzeko. Koefizientea lortzeko, kontuan hartu beharreko faktorea zati talde bakoitzak jokatutako partida ofizialak egingo da.

4. Hemen aurreikusten ez diren kasuetan, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak erabakiko du.

3. KAPITULUA
LURRALDEKO AURRETIAZKO FASEAK DITUZTEN LEHIAKETETARAKO SAILKATZEA

en tiempo y forma, a participar, se atenderá al siguiente cuadro de criterios, para determinar quién debe ocupar su lugar:

1.- El equipo que hubiese perdido la categoría en la promoción, si la hubiere. En el caso de que dos o más equipos tengan estos mismos derechos, se atenderá en primer lugar al orden de clasificación final obtenido en su Campeonato.

2.- El equipo que perdió la categoría automáticamente. En el caso de que dos o más equipos tengan estos mismos derechos se atenderá en primer lugar al orden de clasificación obtenido en su Campeonato.

3.- En las competiciones oficiales, que se desarrollan en más de un grupo por categorías, se obtendrá una distribución lineal de los equipos de acuerdo con los siguiente criterios:

a) Número de puntos obtenidos.

b) Mayor diferencia de goles a favor y en contra.

c) Mayor número de goles marcados.

En el supuesto de haberse jugado distinto número de partidos, se obtendrá un coeficiente resultante, dividiendo el factor a considerar por el número de partidos oficiales jugados por cada equipo.

4. En los casos no previstos, resolverá el Comité de Competición y Disciplina Deportiva.

CAPÍTULO 3º
CLASIFICACIÓN EN COMPETICIONES CON FASES TERRITORIALES PREVIAS

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

14. artikulua.- Lurraldeko lehenengo fasean parte hartzen duten talde guztiek aurretiazko konpromiso bat hartzen dute: sailkatuz gero, lurraldeko lehiaketa ofizialetan parte hartu behar dute, non eta denboraldi bakoitzeko urtarrilaren 20a baino lehen ez dioten jakinarazten Bizkaiko Eskubaloi Federazioari parte hartuko ez dutela; kasu horretan, hurrengo sailkatuak hartuko luke haien lekua.

Artículo 14.- Todos los equipos participantes en la primera Fase Territorial, se comprometen de antemano, en el caso de que se clasifiquen, a participar en las competiciones oficiales de ámbito territorial, a no ser que, antes del 20 de enero de cada temporada, comuniquen por escrito a la Federación Vizcaína de Balonmano / Bizkaiko Eskubaloi Federazioa su intención de no participar; motivo por el cual participaría el siguiente equipo clasificado.

4. KAPITULUA. PARTE HARTZEKO BETEBEHARRA

CAPÍTULO 4º. OBLIGACIÓN DE PARTICIPACIÓN

15. artikulua.- Talde guztiek, ukoa ez badute behar den denboran eta moduan aurkeztu behintzat, lehiaketa osoa jokatu behar dute, eta araudi honetako 12. artikuluan ezartzen denaren arabera jokatu ere.

Artículo 15.- Se entenderá contraída la obligación de jugar íntegramente la competición por parte de todos los equipos si no han efectuado la renuncia en tiempo y forma, y en consonancia con lo establecido en el artículo 12 del presente reglamento.

Ekainaren 30a baino lehen eta gehienez ere lehiaketak hasi baino hogeita hamar (30) egun lehenago hutsik geratzen diren lekuak betetzeko, ordezkapenerako irizpide berdinak erabiliko dira; irizpideok titulu honetan aipatzen dira.

Para las vacantes que se produzcan con anterioridad al 30 de junio, y como máximo treinta (30) días naturales antes del comienzo de las competiciones, se aplicarán los mismos criterios de sustitución, citados en el presente Título.

Gainerako kasuetan ez da ordezkapenik egingo, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak modu berezian besterik erabakitzen ez badu behintzat.

En los demás casos, no se producirá sustitución alguna, salvo consideración especial acordada por el Comité de Competición y Disciplina Deportiva.

16. artikulua.- Lurraldeko lehiaketetan parte hartuko duten talde guztiek, izena emateko, "Lehiaketan izena emateko eskabidea" inprimakia bete eta Lehiaketa Arlora bidali behar dute; Bizkaiko Eskubaloi federazioak emango ditu inprimakiok.

Artículo 16.- Todos los equipos participantes en competiciones territoriales, están obligados, para su inscripción, a cumplimentar y remitir al Área de Competiciones el impreso de "Solicitud de inscripción en Competición", que facilitará la F.V.BM./B.E.F.

Eskabidean honako datu hauek jaso behar dira: talde sailkatuaren klubak duen izen ofiziala; taldearen izendapen ofiziala; klubaren egoitzaren helbide osoa, telefono zenbakia eta posta zein

En dicha solicitud deberán constar los siguientes datos: Nombre oficial del Club al que pertenece el equipo clasificado, denominación oficial de éste, domicilio social completo y número de teléfono,

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA SAILA Kirol Zuzendaritza DEPARTAMENTO DE CULTURA Dirección de Deportes

federazioko organoek hartzen dituzten erabaki eta ebazpenak bidaltzeko posta elektronikoa; faxik izanez gero, argi adierazi behar da fax zenbakia eta zein pertsonari bidali behar zaion; kalea edo plaza, zenbakia, udalerria eta probintzia, posta kodearekin batera; harremanetarako pertsona edo pertsonen telefono zenbakia; klubaren presidentearen izena eta Zuzendaritza Batzordeko kideen zerrenda, bakoitzak betetzen duen karguarekin eta bakoitzaren NAN eta guzti; taldeak jokatzeko erabili ohi dituen kirol-instalazioen helbide osoa; kirol-jantzi titularraren eta ordezkoaren koloreak; eta kluba erregistratuta dagoen Kirol Erakundeen Erregistroaren izena, eta klubaren estatutuak noiz erregistratu ziren eta erregistro horrek zein zenbakia duen adierazi behar da bereziki.

dirección y correo electrónico para envío de correspondencia y notificaciones de acuerdos y resoluciones de los distintos Organismos federativos, indicando claramente el número de fax, en su caso, persona a la que debe ir dirigida, calle o plaza, número, localidad y provincia con su código postal correspondiente, y número de teléfono de la persona o personas de contacto, nombre del Presidente del Club y relación de los componentes de la Junta Directiva del mismo, con indicación del cargo y el D.N.I., dirección completa de las instalaciones deportivas donde celebren habitualmente sus encuentros, colores de la vestimenta deportiva titular y de la reserva, y nombre del Registro de Asociaciones Deportivas donde conste inscrito el Club con especial mención del número y fecha de registro de sus Estatutos.

Izena emateko eskabidearekin batera, klubaren estatutuen fotokopia bidali behar da, eta hor agertu behar da Kirol Erakundeen Erregistroan izena emateko dilijentzia edo, horrelakorik ez badago, erregistro horrek emandako ziurtagiria, klubaren erregistro zenbakia eta eguna, klubaren izen ofiziala eta klubak dituen kirol-atalak adierazten dituena.

Junto con la solicitud de inscripción se remitirá fotocopia de los Estatutos del Club, donde conste la diligencia de inscripción en el Registro de Asociaciones Deportivas, o en su defecto, certificación expedida por este, haciendo mención del número y fecha de registro del Club, nombre oficial del mismo y secciones deportivas de las que se compone.

Orri horretan jasota dauden datuek indarrean jarraituko dute ondorio guztietarako, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak aldatzen ez baditu; aldatu aurretik, idatzizko jakinarazpena bidali behar du, aldaketa indarrean sartu baino hamabost (15) egun lehenago.

Los datos consignados en la mencionada hoja se mantendrán en vigor a todos los efectos, de no ser modificados por acuerdo del Comité de Competición y Disciplina Deportiva, previa comunicación escrita, con quince (15) días de antelación a su entrada en vigor.

17. artikulua.- Lehiaketa egiteko modua, lehiaketen egutegia eta txapelketa bakoitzaren gainerako datuak horietako bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

Artículo 17.- La fórmula de competición, el calendario de las mismas y demás datos de cada Campeonato se concretarán en las Bases específicas de cada uno de ellos.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

5. KAPITULUA.

CAPÍTULO 5º

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Kirol Zuzendaritza Nagusia
Kirol Zerbitzua
Departamento de Cultura
Dirección General de Deportes
Servicio de Deportes

PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK

18. artikulua.- Lehiaketa bakoitzaren oinarrietan urtero ezarriko da parte hartzeko zer diru eta fidantza jarri behar diren; lehiaketan parte hartzen duten guztiek ordaindu behar dituzte, eta horretarako azken eguna lehiaketa hasi aurreko irailaren 30a izango da. Ordaintzeko, banku transferentzia edo taloi adostua erabil daiteke.

Halaber, klub guztiek ordaindu behar dituzte federazioko organoek ezartzen dituzten zigorrak eta betebeharrak, edozein motatakoak direla ere, aurreko lerroaldeetan adierazten diren egunetan, eta kategorien arabera.

19. artikulua.- Lurraldeko lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten taldeek lehiaketako partidak direla-eta sortzen diren gastu guztiak ordaindu behar dituzte: joan-etorriak, epaileak eta, oro har, partidak antolatzeko gastuak.

20. artikulua.- Lehiaketako partida ofizial bakoitza amaitutakoan, partidan izan den epaile bakoitzaren jardunari buruzko txosten idatzia bidali behar diete klubek Bizkaiko Eskubaloi Federazioko Epaileen Batzorde Teknikoari, eta horretarako hain zuzen ere ematen diren inprimakiak erabili behar dira. Txostenean, epaile bakoitzaren jardunari buruzko ohar garrantzitsu guztiak eta epaile bien portaerak izan duen eragina adierazi behar dira.

21. artikulua.- Ekainaren 30ean federazioarekin dituzten konpromiso edo eskubaloiaren inguruan dauden beste estamentuekin hitzartutakoaren ondoriozko konpromisoak ordaindu gabe dauzkaten klubek honako hau egin behar

REQUISITOS PARA PARTICIPAR

Artículo 18.- En las bases de cada competición se establecerán anualmente las cuantías económicas de participación y fianzas, que deberán abonar los participantes de cada competición, estableciéndose como fecha final para su pago el 30 de septiembre anterior al inicio de las competiciones, mediante transferencia bancaria o talón conformado.

Asimismo es obligación de todos los clubes satisfacer los importes económicos de las sanciones impuestas por los órganos competentes y demás obligaciones federativas, que de cualquier tipo les corresponda, en las fechas indicadas en los párrafos anteriores, según las categorías.

Artículo 19.- Será por cuenta de los equipos participantes en las competiciones oficiales de ámbito territorial, los gastos de desplazamiento, estancias, arbitraje y, en general, todos los de organización de los encuentros correspondientes a las mismas.

Artículo 20.- Después de cada encuentro oficial de competición, cada Club enviará al Comité Técnico de Árbitros de la Federación Vizcaína de Balonmano un informe escrito sobre la actuación individual de cada árbitro/a mediante los impresos facilitados al efecto, cumplimentándolos con cuantas anotaciones hayan sido determinantes de su actuación y la incidencia del comportamiento global de la pareja arbitral.

Artículo 21.- Los Clubes que al 30 de junio no hayan satisfecho las deudas por sus compromisos federativos o acuerdos adquiridos con los demás estamentos de balonmano, se verán obligados a:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

Alameda Rekalde, 30-1º • 48009 Bilbao
Tel.: 94 406 87 80 • Fax: 94 406 87 64

dute:

a) Askatasun-agiria eman behar diete agiri hori eskatzen duten jokalari guztiei, nahiz eta hurrengo urteetarako lizentzia eduki, eta klubak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik; klubak ez badie askatasun-agiria ematen, federazioak bere kabuz emango die.

a). Dar la carta de libertad a los jugadores y/o jugadoras que lo soliciten, aún en el caso de tener licencia para años posteriores, sin derecho a indemnización alguna, y en caso contrario se practicará de oficio.

b) Daukaten kategorian baja hartu behar dute, eta ezin dute kategoria batean ere sartu zor guztia kitatu arte.

b). Causar baja de la categoría que por derecho tengan que ocupar, no pudiendo incorporarse a categoría alguna hasta la liquidación formal de su deuda.

Dena dela, hartzekodunek dauzkaten eskubideak errespetatu behar dira, eta baja eman aurretik, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak kasu bakoitza aztertu eta bajaren aldeko txostena eman behar du.

Todo ello, sin perjuicio de los derechos adquiridos por los acreedores, y se realizará después del informe favorable y estudio de los casos en concreto del Comité de Competición y Disciplina Deportiva.

Klubak zorrak dituen bitartean edozein estamenturekin, Bizkaiko Eskubaloi Federazioak ez dio beste lizentziarik izapidetuko klub horri. Zorrak Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordearen aurrean egiaztatu behar dira, eta batzorde horrek jakinaraziko dizkio Bizkaiko Eskubaloi Federazioari.

Mientras que algún Club mantenga deudas con algún Estamento, la F.V.BM./B.E.F. no tramitará ninguna licencia nueva. Estas deudas se acreditarán en el Comité de Competición y Disciplina Deportiva que será quien se lo comunique a la F.V.BM./B.E.F.

IV. TITULUA. KLUBEN BAT-EGITEA, KIROL-ESKUBIDEAK LAGATZEA ETA KLUB FILIALAK

TITULO IV. FUSIÓN DE CLUBES, CESIÓN DE DERECHOS DEPORTIVOS Y CLUBES FILIALES

1. KAPITULUA. KLUBEN BAT-EGITEA

CAPÍTULO 1º. FUSIÓN DE CLUBES

22. artikulua.- Klubek, kirol-jarduna hobetzeko, bat egin dezakete, indarrean dagoen legediaren eredura. Bat-egiteek gehienez ere ekainaren 30a baino lehen egin behar dira; egun horren ondoren egiten direnak ez dute ondoriorik sortuko federazioaren aurrean hurrengo denboraldira arte.

Artículo 22- Los Clubes podrán fusionarse en beneficio de su acción deportiva al amparo de la legislación vigente. Estas fusiones deberán producirse como máximo hasta el 30 de junio, y las que se produzcan transcurrido este plazo no tendrán efectos federativos hasta la temporada siguiente.

Klubek bat-egiteko akordioan honako

En el acuerdo de fusión de Clubes

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Kirol Zuzendaritza Nagusia
Kirol Zerbitzua
Departamento de Cultura
Dirección General de Deportes
Servicio de Deportes

hauek jaso behar dira:

- Bat-egitearen zergatia.

- Klub biek bat-egitearen aurretik daukaten egoera ekonomikoa; zehatz-mehatz adierazi behar dira klubek eskubaloiko estamentuekin dauzkaten zorrak, ordaindu gabekoak.

- Kluben kirol-egoera; klub bakoitzak dituen atalak eta bakoitzean dauden taldeak adierazi behar dira.

- Klub berriko Zuzendaritza Batzordearen osaera, egoitza eta izen berria.

- Bat egiten duten klub bien lehendakarien sinadurak eta klub berriko Zuzendaritza Batzordearen lehendakariarena ere bai.

Bat-egitea notarioaren akta bidez egin behar da; aktan, aurreko atalean zehazten diren datuak jaso behar dira. Aktari, klub bietako zuzendaritza batzordeek eta/edo bazkideen batzar nagusiek (bakoitzaren estatutuetan zehazten dena) bat egiteko aurretik hartutako erabakia erantsi behar zaio, eta erabakiotan jasota utzi behar dute bazkideek ordezkaritza eskuordetzen dietela aktan agertutakoei.

Agiri horiek guztiak Bizkaiko Eskubaloi Federaziora bidali behar dira, ekainaren 30a baino lehen, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak, hala badagokio, onetsi ditzan.

Behin bat-egitea onetsita, klub berria Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu behar da.

Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak ez du bat-egitea onetsiko baldin eta bat egiten duten erakundeek ez

deberán constar los siguientes datos:

- Motivo de la fusión.

- Situación económica de ambos Clubes antes de la fusión, expresando pormenorizadamente las deudas pendientes con todos los estamentos del balonmano.

- Situación deportiva de los mismos, indicando las secciones de que se componen y equipos que las forman.

- Formación de la Junta Directiva del nuevo Club, domicilio social y nuevo nombre del mismo.

- Firma de los Presidentes o Presidentas de ambos Clubes fusionados y del Presidente/a de la Junta Directiva del nuevo.

La fusión deberá realizarse a través de un Acta Notarial, donde consten los datos indicados en el apartado anterior, siendo necesario acompañar a la misma el previo acuerdo de las Juntas Directivas y/o de las Asambleas Generales de socios (según se establezca en sus Estatutos) de ambos Clubes en cuyos acuerdos han de consignar también que delegan su representación en los comparecientes en el Acta.

Dicha documentación deberá remitirse a la F.V.BM./B.E.F, hasta el 30 de junio, para su aprobación, si procede, por el Comité de Competición y Disciplina Deportiva.

Una vez aprobada la fusión, deberá inscribirse el nuevo club en el Registro de Asociaciones Deportivas del Gobierno Vasco.

El Comité de Competición y Disciplina Deportiva no aprobará la fusión mientras no se hayan liquidado por las entidades

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

Alameda Rekalde, 30-1° • 48009 Bilbao
Tel.: 94 406 87 80 • Fax: 94 406 87 64

badituzte aurretik kitatu federazioarekin dituzten zorrak eta eskubaloiko gainerako estamentuekin hartutako hitzarmenen ondoriozko konpromisoak. Horretarako, bat-egiteko prozedura martxan dagoela jakinaraziko die inplikatuta dauden gainerako alderdiei, bat-egitearen gaineko irizpena eman dezaten.

implicadas todas las deudas federativas y acuerdos adquiridos con los demás estamentos del balonmano. Para ello, pondrá en conocimiento de las partes implicadas la existencia del procedimiento de fusión para su pronunciamiento al respecto.

2. KAPITULUA. KIROL- ETA FEDERAZIO-ESKUBIDEAK LAGATZEA

CAPÍTULO 2º. CESIÓN DE DERECHOS DEPORTIVOS Y FEDERATIVOS

23. artikulua.- Klubek elkarri laga diezazkiekete kirol- eta federazio-eskubideak, baldin eta lagapen horretan honako betekizun hauek betetzen badira:

Artículo 23.- Los Clubes podrán transmitir o ceder sus derechos deportivos y federativos, siempre que en la cesión se dé cumplimiento a los siguientes requisitos:

1.- Lagapena, beranduen jota, ekainaren 30a baino lehen egitea. Epe hori igaro ondoren egiten diren lagapenak ez dute ondoriorik izango federazioaren aurrean hurrengo denboraldira arte.

1º.- Que la cesión se produzca hasta el 30 de junio. Las que se realicen transcurrido dicho plazo no tendrán efectos federativos hasta la temporada siguiente.

2.- Lagapena, nahitaez, notario-eskritura publikoaren bidez egin behar da, eta ekainaren 30a baino lehen Bizkaiko Eskubaloi Federaziora bidali behar da. Eskrituran honako hauek jaso behar dira:

2º.- Se realizará, necesariamente, mediante escritura pública notarial, que deberá remitirse a la F.V.BM./B.E.F. hasta el 30 de junio, en la que habrán de observarse las siguientes circunstancias:

a) Klubek, lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak, hartutako erabakia, bazkideen klub bietako zuzendaritza batzordeek eta/edo bazkideen batzar nagusiek (klub bakoitzaren estatutuetan zehazten denak) behar bezala baimendutakoa.

a) Acuerdo adoptado por los Clubes, cedente y cesionario, debidamente autorizado por la Junta Directiva y/o por la Asamblea General de socios según lo establezcan sus estatutos.

b) Lagapenaren zioa.

b) Motivo de la cesión.

c) Klub lagapen-hartzailearen egoera ekonomikoa.

c) Situación económica del Club cesionario.

d) Klub lagapen-hartzaileko Zuzendaritza Batzordearen osaera.

d) Formación de miembros de la Junta Directiva del club cesionario.

e) Klub lagatzaileak talde bat baino gehiago badu hainbat kategoriatan, zein

e) En el caso de que el Club cedente tenga varios equipos en distintas

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

talde lagatzen den adierazi behar da (bat ala gehiago diren).

categorías, deberá expresarse aquel o aquellos que sean objeto de la cesión.

f) Klub lagapen-hartzailea sortu berria bada, honako hauek eman behar ditu:

f) Si el Club cesionario fuese de nueva creación, deberá aportar:

Kluba sortzeko notario-akta: kluba osatzen duten pertsona guztien izen-abizenak zein bakoitzaren egoera jaso behar ditu; klubaren izena, egoitza eta dituen ondasunak eta xedea, eta berariaz adierazi behar da klubak ez daukala irabazi-asmorik; estatutuak, kluba sortu duten bazkide guztiek —sorrera-aktan agertzen direnek— sinatu eta onartuta; klubari eragiten dioten kirolaren arloko lege guztiak bete eta errespetatzeko konpromisoa; klubari dagokion Kirol Erakundeen Erregistroan izena emateko eskabidea eta erregistro horretan izena eman izanaren ziurtagiria eta izen-emate horrek duen zenbakia.

Acta notarial fundacional del Club, en la que deberán constar las personas que lo constituyan con expresión de todas y cada una de sus circunstancias personales; denominación del Club; domicilio social; bienes y objeto social del mismo, con expresa exclusión de ánimo de lucro; estatutos aprobados y firmados por todos y cada uno de los socios fundadores y que consten en el Acta fundacional; compromiso de acatar y respetar cuantas leyes deportivas le afecten; solicitud de inscripción en el Registro de Asociaciones Deportivas correspondiente y certificado de su inscripción definitiva en el Registro pertinente y número de inscripción.

3. Egindako lagapena onartzea.

3º.- Aceptación de la cesión efectuada.

4.- Lagapenak ez du baliorik ez legearen aurreko ondoriorik izango erakunde lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak federazio-eskubide guztiak eta eskubaloiko gainerako estamentuekin hartutako erabakiak likidatzen ez dituzten bitartean. Lagapenean, behin betiko lagako dira taldeen kirol- eta federazio-eskubide guztiak, eta, horiekin batera, horien osagarri diren eskubide guztiak ere bai: fidantzak, abalak, bermeak, etab.

4º.- Dicha cesión no tendrá efectos legales ni validez mientras no se hayan liquidado por la entidad cedente y por la entidad cesionaria todos los derechos federativos y acuerdos adquiridos con los demás estamentos del balonmano y comprenderá la totalidad de los derechos deportivos y federativos de los equipos cedidos con carácter definitivo y conllevando la de todos sus derechos accesorios como fianzas, avales, garantías, etc.

5.- Erakunde lagapen-hartzaileak berenberegi onartu behar ditu dauden zor guztiak eta erakunde lagatzailearen eskubide-betebehar guztiak subrogatuko ditu.

5º.- Reconocimiento expreso por parte de la entidad cesionaria de las deudas existentes, y su subrogación en todos los derechos y obligaciones de la entidad cedente.

6.- Ez da lagapenik onartuko klub lagatzaileak etorkizuneko eskubiderik gordetzen badu beretzat.

6º.- No se admitirá cesión alguna en la que el Club cedente haga reserva alguna de futuros derechos.

KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

7.- Lagapen-hartzaileak modu frogagarrian edo notario bidezko eskutitza erabiliz jakinarazi behar die laga diren taldeetako jokalari eta ofizial guzti-guztiei nahiz lagatakoaren hartzekodun diren jokalari eta ofizial guzti-guztiei ere bai — batzuen zein besteen zerrenda osoa lagapen-eskriturari erantsiko zaio— egun horretatik aurrera klub lagapen-hartzaileak klub lagatzailearen kirol- eta federazio-eskubide guztiak bai eta betebeharrak ere subrogatu dituela.

7º.- El cesionario vendrá obligado a notificar fehacientemente o mediante carta por conducto notarial a todos y cada uno de los jugadores/as y oficiales integrantes del ó de los equipos, objeto de cesión, así como a los jugadores/as y oficiales con los que existan deudas pendientes, cuya relación completa de los mismos se unirá a la escritura de la cesión, haciéndoles saber que a partir de esa fecha, el Club cesionario ha quedado subrogado en todos los derechos deportivos y federativos, así como en las obligaciones del Club cedente.

8.- Bizkaiko Eskubaloi Federazioko Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak onartzea.

8ª.- Aprobación de la cesión por el Comité de Competición y Disciplina Deportiva de la F.V.BM./B.E.F.

3. KAPITULUA. KLUB FILIALAK

CAPÍTULO 3º. CLUBES FILIALES

24. artikulua.-

1) Klubek elkarren filial izateko hitzarmenak sina ditzakete; horretarako, honako premisa hauek hartu behar dituzte aintzat:

• Klub guztiek lurralde federazio berekoak izan behar dute.

• Klub babesleak klub babestuak baino goragoko kategoria batean jokatu behar du.

• Klub babesleak zein babestuak klub bateko zein besteko batzar nagusien berariazko baimena behar dute, eta baimen horiek Bizkaiko eskubaloi Federazioari jakinarazi behar zaizkio.

• Filial izateko harreman horrek formalizatuta eta onartuta egon behar du denboraldi berria hasten denerako, eta beranduen jota klub babesleak parte hartzen duen txapelketa hasi baino hilabete lehenago.

• Filial izateko harreman hori idatziz formalizatu behar da, notario-akta bidez.

Artículo 24.-

1) Los Clubes podrán establecer entre sí convenios de filialidad, teniendo en cuenta las siguientes premisas:

• Los clubes deberán pertenecer a la misma Federación Territorial.

• El patrocinador deberá militar en categoría superior a la del patrocinado.

• El patrocinador y el patrocinado deberán obtener la expresa autorización de sus respectivas Asambleas, las cuales deberán ser notificadas a la F.V.BM. /B.E.F.

• La relación de filialidad deberá estar formalizada y aprobada al inicio de la nueva temporada, y no más tarde de un mes antes del inicio del campeonato en que participe el club patrocinador.

• Esta relación de filialidad se formalizará por escrito mediante Acta Notarial

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Kirol Zuzendaritza Nagusia
Kirol Zerbitzua
Departamento de Cultura
Dirección General de Deportes
Servicio de Deportes

Akta hori filial harremana izango duten klubetako presidenteek sinatu behar dute eta, ondoren, Bizkaiko Eskubaloi Federazioari bidali behar zaio, organo eskudunaren bidez onar dezan.

firmada por los Presidentes de los clubes afectados, que se trasladará a la F.V.BM./B.E.F. quien reconocerá dicho acuerdo por el órgano competente.

2) Filial izateko hitzarmenetan nahitaez ezarri behar da hitzarmenaren iraupena, eta hitzarmena amaitzen den egunean amaitutzat joko da filial izateko harremana. Harremana luzatu nahi izanez gero, harreman hori duten klubek beste hitzarmen bat sinatu beharko lukete, hitzarmenerako baldintza guztiak jasotzen dituena.

2) En el acuerdo de filialidad se deberá establecer expresamente la duración del mismo, entendiéndose extinguida la relación de filialidad en la fecha de finalización del acuerdo. En el caso de que la relación se quisiera prorrogar, los clubes afectados deberán suscribir nuevo acuerdo de filialidad con todos sus condicionantes.

3) Filial izateko hitzarmena ezin da suntsiarazi denboraldian zehar, ez alde batek nahi badu, ezta alde biek nahi badute ere. Bai suntsiaraz daiteke, aldiz, alde biak ados jarriz gero, hitzartutako epea amaitu baino lehen eta kirol-denboraldi bat amaitu aurretik.

3) El acuerdo de filialidad no podrá resolverse, por alguna de las partes ni por ambas, durante el transcurso de una temporada. Si podrá ser resuelto, de mutuo acuerdo, antes de la finalización del plazo convenido y a la finalización de una temporada deportiva.

4) Klub filialetako taldeak beti daude klub babeslearen menpe; hortaz, klub babeslea filialaren kategoriara jaitsiz gero, klub filialeko taldea kategoria horren behetik dagoen hurrengora jaitsiko da. Talde filial batek ezin du goragoko kategoria batera igo, kategoria horretan klub babesleko talde batek parte hartzen badu. Klub filialen arteko igoera-jaitsieren eragin zuzenen kasuan ez da kontuan hartuko filial izateko hitzarmenaren suntsiarazpena.

4) Los equipos de los clubes filiales quedarán siempre subordinados a sus patrocinadores, de tal suerte que el descenso de éste a la categoría de aquel, llevará consigo el descenso del equipo del club filial a la inmediata inferior. Tampoco podrá ascender un equipo filial a categoría superior si en ella participa un equipo del club patrocinador. En estos casos de implicaciones directas de ascensos y descensos entre los clubes filiales, no se tendrá en cuenta la resolución del acuerdo de filialidad.

5) Klub babesle batek gehienez ere klub filial bat izan dezake.

5) Un club patrocinador no podrá tener mas de un club filial.

6) Klub filialak ezin du klub babeslearen izen bera izan, eta babesleak klub filial bakarra izan dezake kategoria nazionalean eta lurraldekoan, gazteen mailetan edo hortik beherako kategorietan izan ezik.

6) El club filial no tendrá la misma denominación que la del patrocinador, y este sólo podrá disponer de uno de aquellos en cada una de las categorías nacional y territorial, excepto tratándose de las de juveniles o de las inferiores a éstas.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

Alameda Rekalde, 30-1° • 48009 Bilbao
Tel.: 94 406 87 80 • Fax: 94 406 87 64

7) Beste klub baten filiala den klub batek ezin du klub filialik eduki.

8) Gazteen kategoriako eta oinarrizko kiroleko kategorietako (kadeteak, gaztetxoak, kimuak eta umetxoak) taldeek ezin du filial harremanik eduki.

9) Klub babesleak klub filialeko jokalariak erabil ditzake bere talde seniorretan, baina klub filialeko jokalaria klub babesleak duen kategoriakoa baino beheragoko kategoria batekoa izan behar du; orobat, klub filialeko jokalariek klub babeslean jokatu ahal izateko, Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren araudiak taldeen osaeran izan daitekeen kupo osagarriari buruz ezartzen dituen betekizunak bete behar dira.

V. TITULUA.
JOKALARIEN ETA OFIZIALEN PARTE-HARTZEA

1. KAPITULUA.
ALDERDI OROKORRAK

25. artikulua.- Jokalarien eta ofizialen lizentziak tramitatzeko behar diren jatorrizko agiri guztiak Federazioan aurkeztu behar dira, jardunaldi bakoitzaren aurreko ostiraleko hamalau (14) orduak baino lehen, edo, aste horretan jai egunik egonez gero, aste horretako azken lanegunean; lizentzia eskatzen duen klubaren erantzukizuna izango da jokalariaren asegurua egingo duen erakundeak zehazten duen gabealdia betetzea.

Kategoria bakoitza osatuko duten jokalarien adin-tarteak biltzen dituen koadroa urtero argitaratuko da, Bizkaiko Eskubaloi Federazioak antolatzen duen lehiaketa bakoitzaren oinarrietan.

26. artikulua.- Jokalariek, entrenatzaileek eta entrenatzaileen laguntzaileek klub

7) Un club que sea filial de otro no podrá tener clubes filiales.

8) No se permite la relación de filialidad entre sí para equipos de categoría juvenil y del deporte de base (cadetes, infantiles, alevines y benjamines).

9) El club patrocinador podrá utilizar en sus equipos senior a jugadores/as del club filial, teniendo en cuenta que el jugador/a de éste deberá pertenecer a categoría inferior a la del equipo patrocinador, y cumpliendo con los requisitos establecidos en la normativa de la F.V.BM./B.E.F. sobre el cupo adicional en la composición de equipos.

TITULO V.
PARTICIPACIÓN DE JUGADORES/AS Y OFICIALES

CAPÍTULO 1º.
GENERALIDADES

Artículo 25.- Toda la documentación necesaria original para la tramitación de las licencias de jugadores(as) y oficiales, deberá presentarse en la Federación antes de las catorce (14) horas del viernes anterior a la jornada que corresponda, o último día laboral de la semana en el caso que coincida alguna festividad en esa semana, siendo responsabilidad del Club solicitante el cumplimiento del período de carencia establecido por la Entidad aseguradora correspondiente.

El cuadro de edades de jugadores/as que componen cada categoría se publicará anualmente en las bases de cada competición que organiza la F.V.BM.

Artículo 26.- La licencia de los jugadores/as, entrenadores y ayudantes

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

batean duten lizentzia denboraldi baterako soilik egin daiteke, nahiz eta federazioan bai egon jokalari seniorrak denboraldi bat, bi edo hirurako —nahi denerako— atxikitzea errazten duten akordioak. Ez da hori gertatzen, baina, gazteen kategorian edo beheragokoetan, lizentziak gehienez ere denboraldi baterako izan baitaitezke.

Lizentziak kategoria jakin baterako ematen dira, eta ezin dira kategoria horretan barik beste kategoria batean erabili, araudi honetan zehazten diren kasuetan izan ezik.

de entrenador, a favor de un determinado Club, solo podrá extenderse por una temporada, sin importar los acuerdos federativos existentes que facilitan la adscripción de jugador/a senior por una, dos o tres temporadas, indistintamente. No así para los de categoría juvenil o inferiores que sólo se podrán extender por una temporada como máximo.

Dichas licencias sólo se extenderán para una determinada categoría, no siendo autorizado su uso en otra distinta para la cual haya sido diligenciada, exceptuando los casos que se establecen en el presente Reglamento.

2. KAPITULUA. JOKALARIAK ETA OFIZIALAK PARTIDA BATEKO ZERRENDAN SARTZEA

CAPÍTULO 2º. ALINEACIÓN DE JUGADORES/AS Y OFICIALES

27. artikulua.- Jokalariak, balio osoz, klub batek lehiaketa ofizialeko partidetan aurkezten duen jokalarien zerrendan sartu ahal izateko, honako hauek bete behar dira:

Artículo 27.- Para que los jugadores/as puedan alinearse validamente con un Club en partidos de competición oficial, será preciso:

Artículo 104.- Los jugadores/as de un equipo, deberán actuar en el terreno de juego y durante todo el encuentro, vistiendo el mismo uniforme con los colores distintivos de su Club, debiendo distinguirse claramente en el color y diseño de los del equipo contrario, y llevando obligatoriamente calzado deportivo; el color de los jugadores/as que actúen como porteros/as debe diferenciarse claramente de la vestimenta de los dos equipos y portero contrario.

Una vez comenzada la temporada, los clubes no podrán cambiar los colores elegidos (titular y/o reserva) comunicados a la Federación, salvo petición expresa por escrito y su consiguiente autorización oficial, que entrará en vigor a los quince (15) días de su concesión.

No se permitirá, la actuación de jugadores/as que no cumplimenten lo dispuesto en los párrafos anteriores, en tanto no subsanen las deficiencias observadas.

En cualquier caso, es obligatorio, que los porteros de un mismo equipo que participen en un mismo encuentro deberán llevar la misma vestimenta.

Artículo 105.- Se prohíbe llevar cualquier objeto que pueda ser peligroso para los jugadores, como son: protección en la cabeza, máscaras faciales, brazaletes, relojes, anillos, collares o cadenas, pendientes, gafas sin bandas protectoras o montura sólida. Están permitidas las bandas de cabeza, siempre que estén hechas de material elástico y suave.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

Alameda Rekalde, 30-1º • 48009 Bilbao
Tel.: 94 406 87 80 • Fax: 94 406 87 64

Arauok betetzen ez dituzten jokalariek ezin izango dute jokatu hartu arazoa konpontzen ez duten bitartean.

Los jugadores/as que no cumplan con estas normas no se les permitirá participar en el juego hasta que corrijan el problema.

106. artikulua.- Uniforme berdina edo antzekoa daukaten talde bik elkarren kontra jokatuz gero, eta horren ondorioz talde batekoak eta bestekoak nahastu egin badaitezke, etxetik kanpo jokatzen duen taldeak aldatu behar du uniformea. Partida jokaleku neutralean jokatzen bada, berriz, eta taldeek aurretiko akordiorik ez badute, lehiaketako egutegi ofizialean bigarren agertzen den taldeak aldatu behar du uniformea.

Artículo 106.- Cuando se enfrenten dos equipos cuyos uniformes sean iguales o parecidos, que pudieran dar lugar a confusión, cambiará el suyo por otro distinto, aquel equipo que juegue en campo ajeno, y si el partido fuese en campo neutral, deberá cambiarlo, salvo acuerdo previo, el equipo que figure en segundo lugar en el calendario oficial de competición

Horrelakorik gertatu daitekeen kasuetarako, talde bietako bakoitzak bi uniforme ezberdin eraman behar ditu partidetara.

Para tal eventualidad ambos equipos contendientes deberán ir provistos de dos indumentarias diferentes deportivas cada uno.

Telebistaz emango diren partidetan, talde batek ala biek aldatu behar izango dituzte uniformeak, baldin eta teknikoki ezinezkoa bada pantailan talde bat eta bestea bereiztea.

En caso de partidos televisados, tendrán que cambiarse los colores de uno o ambos equipos, cuando impidieran técnicamente su diferenciación a través de las pantallas.

107. artikulua.- Taldeetako kapitainek 4 cm zabal den besokoa eraman behar dute, besoetako baten beheko aldean; besoko horren koloreak eta kamisetarenak ezberdinak izan behar dute.

Artículo 107.- Los/as capitanes/as de cada equipo deberán llevar un brazalete de 4 cm. de ancho, aproximadamente, en la parte inferior de uno de los brazos, debiendo ser de un color que contraste con el de la camiseta.

108. artikulua.- Jokalariek partidetan eraman beharreko zenbakiei dagokienez, zifra bateko edo biko zenbakiak erabil daitezke, eta zenbakiek ez dute zertan koerlatiboak izan behar, ezta fitxa kopuruaren araberakoak ere.

Artículo 108.- Con referencia a la numeración de los jugadores/as en los partidos, ésta deberá ser, utilizando números de una o dos cifras, no siendo necesario que sean correlativos ni en función del número de fichas.

Jokalarien kamisetan dauden zenbakien kolorea eta kamisetaren kolorea argi eta garbi bereizi behar dira. Zenbakien neurriari eta kokatzeko lekuari dagokionez, berriz, honako arau hauek bete behar dira:

Los números que figuren en la camiseta de jugadores/as deben tener un color que contraste clara y diferencialmente con el específico de la misma, y sus dimensiones y lugar de colocación deberán someterse a las siguientes normas:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

a) NAHITAEZKOA KAMISETAN: 20 cm altu bizkarrean eta 10 cm altu aurreko aldean.
Zenbaki horiek biak erdian kokatu behar dira, modu estetikoan.

b) AUKERAKOA PRAKAN: 7 cm altu prakaren (jokalarientzat, laburra; atezainentzat, luzea) zangoetako baten albo batean.

a) OBLIGATORIO EN CAMISETA: 20 cm. de altura en la espalda y 10 cm. de altura en la parte delantera.
Ambos números deberán colocarse estéticamente centrados.

b) OPCIONAL EN PANTALÓN: 7 cm. de altura en un lateral de una de las perneras del pantalón (corto para el jugador(a) y largo o corto para los porteros(as)

3. KAPITULUA. JOKATZEKO BALOIA

109. artikulua.- Baloiek honako neurri eta pisu hauek eduki behar dituzte:

KATEGORIAK	NEURRIAK	PISUAK
Gizonezkoak: kategoria absolutua eta gazteena	58-60 cm (zirkunferentzia)	425-475 gramo
Emakumezkoak: maila absolutua eta gazteena; gizonezko kadeteak	54-56 cm	325-400 gramo
Emakumezko kadeteak, eta gaztetxoak, kimuak eta umetxoak.	50-52 m	Gehienez, 315 gramo
Minieskubaloia	48 cm	Gehienez, 290 gramo

Epaileek baimena emango dute partida ofizial bat jokatzeko, baldin eta etxeko taldeak aurreko koadroan zehazten diren baldintzak betetzen dituzten baloiak aurkezten baditu.

Kanpoko taldeko kapitainak eskatuta, kapitaina bertan dagoela egiaztatuko dituzte epaileek baloiak.

Arauzko baloirik ez dagoela-eta ezin bada partida jokatu, klub antolatzailea partidara

CAPÍTULO 3º. BALÓN DE JUEGO

Artículo 109.- Los balones deberán tener las medidas y peso que a continuación se detallan:

CATEGORÍAS	MEDIDAS	PESOS
Absolutas y juveniles masculinos.	De 58 a 60 cm. (de circunferencia)	De 425 a 475 gramos.
Absolutas y juveniles femeninas y cadetes masculinos:	De 54 a 56 cm.	De 325 a 400 gramos.
Cadetes femeninos, e infantiles, alevines y benjamines.	De 50 a 52 cm.	Máximo 315 gramos.
Minibalonmano	48 cm.	Máximo 290 gramos.

Los árbitros/as, autorizarán la celebración de un encuentro oficial siempre y cuando el equipo que juegue en su campo presente balones, de conformidad con lo preceptuado en el cuadro anterior.

A requerimiento del capitán del equipo visitante, los árbitros efectuarán la comprobación en su presencia.

En caso de no poderse celebrar el encuentro por falta de balones

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

ez agertutakotzat joko da, araudi honetan ezartzen denaren arabera.

reglamentarios, se considerará al club organizador como incomparecido, según lo dispuesto en el presente Reglamento.

4. KAPITULUA. PARTIDEN EGUNAK ETA ORDUAK

CAPÍTULO 4º. FECHAS Y HORARIOS DE LOS ENCUENTROS

110. artikulua.- Lehiaketa bakoitzeko egutegi ofizialean agertzen den egunean jokatuko dira partidak, ezinbesteko arrazoia edo Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordearen erabakia dela medio atzeratu egin behar izan direnak izan ezik. Atzeratutako partidak astegunetan jokatuko dira.

Artículo 110.- Todos los encuentros se celebrarán en las fechas previstas en Calendario Oficial de cada una de ellas, salvo aquellos que aplazados por causa de fuerza mayor o decisión del Comité de Competición y Disciplina Deportiva, hubieran de celebrarse en días hábiles de la semana.

Ez da inoiz ezinbesteko arrazoitzat joko baliabide ekonomikorik ez edukitzea edo joan-etorriak antolatzeko eta/edo jokalekua aurkitzeko orduan aurreikuspen faltarik edukitzea.

En ningún caso será considerada causa de fuerza mayor, la carencia de recursos económicos o la falta deprevisión en la organización de los desplazamientos y/o localización de Terreno de Juego..

111. artikulua.– Partiden ordutegiek lehiaketa bakoitzeko oinarrietan ezartzen denaren araberakoak izan behar dute.

Artículo 111- Los horarios de los partidos deberán ajustarse a lo que establezcan las bases de cada competición.

Fase bakoitzeko azken jardunaldiko partida guztiak aldi berean hasiko dira: berariazko araudian ezartzen diren egun eta orduan. Nolanahi ere, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak arestian aipatutako neurri hori beharrezkoa ez dela adieraz dezake.

Todos los encuentros correspondientes a la última jornada de cada fase comenzarán todos al mismo tiempo a la hora y día indicados en su normativa específica. No obstante, será el Comité de Competición y Disciplina Deportiva el que se pronunciará en caso de que no sea necesaria esta medida.

Era berean, beste lehiaketa batzuetarako behin betiko sailkapena lortzeko aukera ematen duten jardunaldietan, nahiz eta azken jardunaldia izan ez, partida guztiak egun eta ordu berean jokatu behar dira.

De igual forma en aquellas jornadas que se pueda lograr definitivamente la clasificación para otras competiciones, aunque no sea la última, deberán jugarse en la misma fecha y hora todos los partidos.

112. artikulua.- Talde antolatzaileek Bizkaiko Eskubaloi Federazioari eta aurkako taldeari jakinarazi behar diete partidan zein ordutan jokatuko den eta zein jokalekutan, lehiaketako bakoitzeko oinarri espezifikoetan ezartzen den modu

Artículo 112.- La hora exacta y el terreno de juego donde han de tener lugar los encuentros, deberán ser comunicada obligatoriamente por los equipos organizadores a la Federación Vizcaína de Balonmano y al equipo adversario, en

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA Dirección de Deportes

eta epean jakinarazi ere.

la forma y plazo previstos en las Bases Específicas de cada competición.

Arau hau ez betetzea Diziplinazko Araudiaren arabera zigortuko da. Arauhausteak partida ez jokatzea badakar, berriz, ez agertutakotzat jo daiteke klub antolatzailea eta horren araberakoa zigorra jaso; zigorra, dena den, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak erabakiko du, arauhaustearen larritasuna kontuan hartuta.

El incumplimiento de esta norma será sancionado de conformidad con el Reglamento del Régimen Disciplinario, y en el supuesto que dicha infracción trajera como consecuencia la no celebración del encuentro, el club organizador podrá ser sancionado como incomparecido, a criterio del Comité de Competición y Disciplina Deportiva, según su gravedad.

Aipatutako jakinarazpen hori egiteko, horretarako berariaz diseinatutako inprimaki ofiziala erabili behar da; inprimakia talde guztiei banatuko zaie.

Tal comunicación se efectuará mediante el impreso oficial diseñado para este fin, y que se entregará a todos los equipos.

5. KAPITULUA. PARTIDAK ATZERATZEA ETA EGUNAK ALDATZEA ETA PARTIDAK BERTAN BEHERA UZTEA

CAPÍTULO 5º. APLAZAMIENTOS Y CAMBIOS DE FECHAS Y SUSPENSIÓN DE ENCUENTROS

113. artikulua.- Partida guztiak atzeratu daitezke edo jokatzeko eguna alda daiteke, bai interesdunek eskatuta, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasua dela eta, bai federazioaren kabuz, eta betiere araudi honetan ezarritakoaren arabera.

Artículo 113.- Todo encuentro podrá ser aplazado o cambiada la fecha de su celebración bien por solicitud de interesados debido a causas de fuerza mayor debidamente acreditadas o bien de oficio, y siempre dentro de los términos establecidos en el presente Reglamento.

Era berean, ezinbesteko kasua dela-eta ORDUTEGIA ALDATZEKO eskaria aurkezteko, atzeratze edo aldaketa horren jakinarazpena bidali behar da, aurkariaren idatzizko adostasunarekin eta dagozkion tasak ordaindu izanaren ziurtagiriarekin batera, baldin eta horrela ezartzen bada. Tasaren zenbatekoa, berriz, Batzar Nagusiak onartutako lehiaketako arau edo oinarrietan argitaratuko da.

Igualmente, se procederá con motivo de la presentación de solicitud de CAMBIO DE HORARIO por causa de fuerza mayor, deberá enviar, la comunicación de dicho aplazamiento o cambio, acompañando la conformidad por escrito del equipo contendiente y justificante de pago de las tasas correspondientes, siempre que así se establezca y por el importe que vendrá publicado en las normativas o bases de competición aprobado por la Asamblea General.

Edozelan ere, partida atzeratu edo partidaren ordua eta eguna aldatu ahal izateko, federazioko organo eskudunaren

En cualquier caso solo se podrá efectuar el aplazamiento o cambio de fecha en el horario con la aprobación expresa del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

berariazko onarpena behar da.

Selekzioen (lurraldeko, autonomiako eta/edo estatukoen) jarduna eta IHFko edo EHFko nazioarteko lehiaketetako konpromiso ofizialak direla-eta ere atzeratu daitezke partidak edo haiek jokatzeko egunak aldatu.

Selekzioen jardunaren ondorioz atzeratzen diren partidak bakarrik izan daitezke selekziora deitutako jokalariek federazioaren lizentzia tramitatuta duten kategoriakoak. Ez da kontuan hartuko jokalariok, kupo osagarriak direla-eta, klub bereko beste talde batzuetan ere joka dezaketela. Partidak bakarrik geroratuko dira selekzioen jardunak jokalariei eragiten badie.

Oro har, atzeratu behar den partida noiz jokatu behar den adostu ezin bada, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak erabakiko du noiz jokatu.

Organo eskudunak partida bat geroratzea onartu badu, bai interesdunek eskatuta, bai ofizioz, geroratutako partida hori jokatuko den egunean partida jokatu behar zen egunean lizentzia behar bezala tramitatuta zeukaten jokalariek bakarrik joka dezakete eta/edo partida jokatzeko lehenengo egunean zigortuta ez zeudenek.

114. artikulua.- Lehiaketako partidak bertan behera utzi ahal izateko honako egoera hauetakoren bat geratu behar da:

a) Ezinbesteko kasua.

b) Joko-zelaiaren egoera txarra.

órgano federativo competente.

También se podrán aplazar o cambiar la fecha de celebración de encuentros por motivos de una actividad de las Selecciones, Territoriales, Autonómicas y/o Estatales, así como en virtud de compromiso oficial de competiciones Internacionales de la I.H.F. y/o E.H.F.

Los aplazamientos de encuentros motivados por actividades de las Selecciones tendrán lugar sólo en la categoría correspondiente a la que los jugadores/as tengan la licencia federativa tramitada, sin tener en consideración su posible participación en otros equipos del mismo club dentro de los cupos adicionales, considerándose sólo este tipo de aplazamientos cuando afecten a jugadores/as.

En general, de no existir acuerdo para determinar la fecha del encuentro que deba aplazarse, será el Comité de Competición y Disciplina Deportiva quien fije la fecha de celebración.

En aquellos encuentros que hubiese sido autorizado su aplazamiento por el órgano competente, bien por solicitud de interesados, bien de oficio, sólo podrán alinearse aquellos jugadores que tuvieran licencia debidamente tramitada en la fecha que debía haberse jugado según el calendario oficial de la competición correspondiente, y/o que no estuviesen sancionados el día previsto inicialmente para su celebración.

Artículo 114.- Los partidos de Campeonato no podrán ser suspendidos sino por la concurrencia de cualquiera de las siguientes circunstancias:

a) Por causa de fuerza mayor.

b) Por mal estado del campo.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

c) Ikusleek jokalekua inbaditzea.

c) Por invasión del público en el terreno de juego.

d) Lehiakideetako bat ez bertaratzea.

d) Por incomparecencia de uno de los contendientes.

e) Taldeetako baten managaiztasun edo hutsegite kolektiboa.

e) Por insubordinación o falta colectiva de uno de los equipos.

f) Epaileen erabaki teknikoa, taldeetako batean arauzko jokalari kopurua ez dagoelako.

f) Por decisión técnica de los árbitros debido a la falta de número de los jugadores/as reglamentarios de uno o los dos equipos.

115. artikulua.- Aurkaria partidara joan bada, baina ezinbesteko arrazoi dela-eta partida ofizial bat bertan behera utzi behar bada, klubak ados jar daitezke partida hori hurrengo berrogeita zortzi (48) orduen barruan jokatzeko edo berriz hasteko, horrelakorik egin behar bada. Etxeko taldeak kalte-ordaina ordaindu beharko dio bisitariari: eguneko dieta bat pertsonako bisitariari, eta gehienez ere hamasei pertsonarentzat, baldin eta partida bertan behera uzteagatik talde bisitaria beste egun batez geratu behar bada etxeko taldearen herrian. Dieten zenbatekoa zehazteko Bizkaiko Eskubaloi Federazioak dietatarako ezarrita daukan zenbatekoari begiratuko zaio. Bisitariak joan-etorria bakarrik egin behar badu eta joan-etorri hori gehienez ere 150 kilometrokoa bada, taldeak jasoko duen kalte-ordaina honako hau izango da: autobusaren alokairua, tren txartela edo gehienez ere kotxe bitan egindako kilometroak, Bizkaiko Eskubaloi Federazioak kilometroko jarrita daukan zenbatekoaren arabera. Kalte-ordaina jaso ahal izateko, frogagiriak aurkeztu behar dira beti.

Artículo 115.- Si el visitante se hubiera desplazado y, por causa de fuerza mayor, fuera preciso suspender un partido oficial, antes o después de su comienzo, los Clubes podrán ponerse de acuerdo para celebrarlo o continuarlo, si procede, dentro de las cuarenta y ocho (48) horas siguientes. El Club visitado indemnizará al visitante a razón de una dieta diaria por persona, hasta un máximo de 16 personas, siempre y cuando la suspensión del encuentro le ocasione una estancia extraordinaria de un día completo. El importe de estas dietas se fijará en función de la cifra que para este concepto tenga establecida la F.V.BM./B.E.F.; y en el supuesto de que al visitante sólo le ocasionara un desplazamiento de ida y vuelta, y que éste no fuera superior a 150 Km., la indemnización sería por el importe de alquiler de autocar, billete de tren, o por kilómetros recorridos en un máximo de dos coches a razón de la cantidad que tenga fijada la F.V.BM./B.E.F. por kilómetro; y siempre y cuando se presenten los justificantes.

Kasu horietan, bertan behera geratu den partida baterako izendatuta dauden epaileek ez dute partida hori epaitu behar izango partida jokatzeko jartzen den hurrengo egunean, baina uko eginez gero, jakinarazi egin behar dute,

En estos casos, los árbitros/as nombrados para el partido suspendido no tendrán obligación de arbitrarlo en la nueva fecha en que se señale, pero si renuncian deberán notificarlo telegráficamente, o en tal forma que el

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

telegrafoz zein epaileok izendatu zituen erakundeak partida bertan behera geratu dela egun berean jakin dezala ahalbidetzen edozein bitarteko erabilita, beste epaile batzuk izenda daitezen. Ukoa arestian adierazi bezala jakinaraziko ez balute, izendapena onartzen dutela ulertuko litzateke.

aviso llegue el mismo día de la suspensión al organismo que los nombró, para que se proceda a la designación de nuevos árbitros/as; caso de que así no lo hicieren, se entenderá que aceptan su nombramiento.

116. artikulua.- Aurreko artikuluetan adierazi diren arrazoiak direla-eta partida bat bertan behera geratu bada edo atzeratu egin bada, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak beste egun bat erabakiko du partida jokatzeko, dagokion lehiaketaren arabera. Puntukako lehiaketa balitz, partida hori, ahal bada behintzat, dagokion itzulia amaitu aurretik jokatu beharko litzateke.

Artículo 116.- Cuando por las causas previstas en los artículos anteriores haya sido suspendido o aplazado un encuentro, el Comité de Competición y Disciplina Deportiva señalará nueva fecha, según la competición de que se trate. Si ésta es por puntos deberá celebrarse el partido, siempre que sea posible, antes de la terminación de la vuelta a que corresponda.

Bertan behera geratu edo atzeratu egin den partida bateko epaileen joan-etorrien gastuak eta dietak egoera hori, zuzenean edo zeharka, eragin duen klubak ordainduko ditu, egoera hori eragin duena, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordearen aburuz, ezinbesteko arrazoia izan denean izan ezik.

Los gastos de desplazamiento y dietas de los árbitros/as de un partido suspendido o aplazado, serán abonados por el club causante, directa o indirectamente, del aplazamiento o suspensión del mismo, salvo que el motivo de estas circunstancias fuera debido a causa de fuerza mayor a juicio del Comité de Competición y Disciplina Deportiva.

117. artikulua.- Ezinbesteko arrazoia dela-eta hasita dagoen lehiaketa ofizialeko partida bat bertan behera geratzen bada, zelai berdinean jokatuko da berriro eta bertan behera geratu zenean denbora bera jokatuko da; partida bertan behera geratu zen emaitzarekin zegoen emaitza izango da berriro jokatzerakoan balio duena.

Artículo 117.- Todo partido de competición oficial que una vez comenzado fuera suspendido por causas de fuerza mayor, se jugará de nuevo en el mismo campo y su duración será precisamente la del tiempo que faltara para su normal terminación cuando fue suspendido, siendo válido el resultado existente en el momento de la suspensión.

118. artikulua.- Partida bat bertan behera geratu behar bada ikusleak zelaian sartzeagatik, jokalarien jokaera txarragatik, kanpoko taldeari, epaileei eta haien laguntzaileei eraso egin izanagatik edo talde baten managaiztasunagatik, Diziplinazko Araudian xedatzen dena bete behar da.

Artículo 118.- Siempre que un partido oficial se suspenda por intromisión del público o mala conducta de los jugadores/as, agresión al equipo visitante, a los árbitros/as y sus auxiliares, o insubordinación de un equipo, se estará a lo dispuesto en el Reglamento de Régimen Disciplinario.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak ondo ebazteko beharrezkoak dituen elementuak bildu behar ditu eta gero erabaki.

El Comité de Competición y Disciplina Deportiva decidirá recabando los elementos de juicio conducentes a su mejor resolución.

Horri dagokionez, epaileek ez dute ulertuko partida teknikoki bertan behera geratu denik, baldin eta partidak dirauen artean taldeetako batek ez badauka jokatzeko eskatzen den gutxieneko jokalari kopurua. Horrelakorik gertatzen bada, markagailuan agertzen den emaitza izango da baliozkoa, araua hautsi ez duen taldearen aldekoa bada. Aldiz, emaitza ez balitz araua hautsi ez duen taldearen aldekoa, emaitza 1-0 izango litzateke talde horren alde.

A estos efectos, no se considerará el partido suspendido técnicamente por los árbitros/as por falta de número mínimo de jugadores/as durante su desarrollo. En este caso, el resultado válido será el que refleje el marcador, si es favorable al equipo no infractor. Si el resultado no fuera favorable al equipo no infractor, el resultado será de 1 - 0 a favor del mismo.

119. artikulua.- Ezinbesteko arrazoia joan-etorria egiteko behar diren txartelak lortu ezina baldin bada, arazo hori argudiatzen duen klubak honako hau frogatu behar du: erreserba aurrerapen nahikoarekin egin zuela, egutegia ezagutzen zuela eta txartelak ezin izan zituela lortu. Azken hori frogatzeko, garraio-enpresaren ziurtagiri egiaztatzailea aurkeztu behar du, gertatu zena argiro adierazten duena eta gertatu zena zergatik jazo zen azaltzen duena; ez dira bidaia-agentziek emandako ziurtagiriak onartuko.

Artículo 119.- Cuando la causa de fuerza mayor obedezca a la imposibilidad de obtención de los billetes para desplazamiento, deberá justificar el Club que lo alegue, haber efectuado la reserva con la suficiente antelación, conocido sus obligaciones de calendario y la imposibilidad de haber obtenido los billetes, con certificado acreditativo de las empresas transportistas que claramente refleje dicha situación, y la causa que la motivó, no siendo admisibles los certificados de agencias de viajes.

120. artikulua.- Bizkaiko Eskubaloi Federazioak ahalmena dauka berak antolatzen dituen lehiaketetako partidak bertan behera uzteko, aurretik ezagutzen diren ezinbesteko arrazoiak direla-eta partida hori ezin jokatuko dela aurrez ikusten bada.

Artículo 120.- La F.V.BM./B.E.F. tiene la facultad de suspender los partidos de las competiciones por ella organizadas, cuando pueda preverse la imposibilidad de celebrarlo por causas de fuerza mayor, previamente conocidas.

121. artikulua.- Behin partida hasita dagoela, epaileek bakarrik utz dezakete bertan behera dezakete, honako arrazoi hauek direla eta:

Artículo 121.- Una vez comenzado el partido, solamente, los árbitros/as podrán suspenderlo por las siguientes causas:

a) Talde batek joko-zelaitik alde egitea, horrek partida osorik ezin jokatzea

a) Retirada del campo de un equipo, impidiendo con su actitud que se juegue

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

eragiten badu.

b) Jokalariek kirolaren kontrako jokaera izatea, horrek nabarmen eragozten badu partida irabaztea edo kirol-ordena modu larrian aldatzen badu.

c) Ikusleek jokalekua inbaditzea, horren ondorioz partida segurtasun-berme nahikoekin jokatu ezin bada.

Edozelan ere, behar bezala justifikatuta dagoenean bakarrik erabakiko dute epaileek partida bertan behera uztea; aurretik, haien iritziaren arabera gertatu dena ikusi eta partida jokatzen jarraitu ahal izateko bitarteko guzti-guztiak erabili behar dituzte.

122. artikulua.- Organo eskudunak erabakiz gero partida horrek jarraitu egin behar duela edo berriro jokatu behar dela, jarraipen edo partida berri horretan honako jokalari hauek bakarrik joka dezakete: aurreko partidako aktan arauz izena emanda zeudenek eta partida bertan behera geratu zenean beren klubek kalifikatuta zeudenek, aurretik jokatu zen partidan edo denboran kaleratu edo deskalifikatu ez bazituzten eta ezin jokatzea eragiten dien federazioaren zigorrik ez badute.

123. artikulua.- Partida bat kanpoko taldeak eskatuta ere gera daiteke bertan behera; horretarako, partida normal hasi behar zenetik hogeita hamar minutu igaro badira eta klub antolatzaileari egozgarriak zaizkion arazoengatik —jokalekuaren gabeziak, epaileen iritziz konpondu ezin direnak, klubekoak ez diren elementuak joko-zelaia okupatzea, etab.— partida hasi ez bada, orduan, partida bertan behera utziko dute epaileek, eta partidara ez agertzeagatik jasoko lukeen zigor bera ezarriko zaio klub antolatzaileari.

por entero.

b) Comportamiento antideportivo de los jugadores/as, que manifiestamente eviten ganar el encuentro o que altere gravemente el orden deportivo.

c) Invasión de público al terreno de juego, que imposibilite la continuidad del encuentro, con garantías de seguridad necesaria.

En todo caso, los árbitros/as, antes de dicha suspensión, apreciando aquellas circunstancias según su buen criterio y, procurando siempre apurar todos los medios para que el partido se celebre y lleve a buen término, no acordarán la suspensión más que en el caso de ser absolutamente justificada.

Artículo 122.- Si a juicio del órgano competente hubiese de continuar o repetirse dicho encuentro, sólo podrán alinearse válidamente en la continuación o en la repetición los jugadores/as reglamentariamente inscritos/as en acta y calificados a favor de sus respectivos Clubes en la fecha de producirse aquellas eventualidades y no expulsados o descalificados durante el partido o plazo de tiempo entonces jugado, ni, naturalmente, sometidos a sanción federativa que se lo impida.

Artículo 123.- Un partido se suspenderá a petición del equipo visitante cuando hayan transcurrido treinta minutos de la hora en que debió comenzar, por causas imputables al Club organizador, tales como deficiencias en el terreno de juego que no puedan subsanarse a juicio de los árbitros, ocupación del campo por elementos ajenos al Club, etc., sancionándose al Club organizador como si se tratare de incomparecencia.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

Aurreko lerroaldean ezartzen den eskubidea erabiltzea beti egongo da Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordearen irizpenaren eta ebazpenaren menpe. Batzorde horrek kasu bakoitzeko inguruabarrak aztertuko ditu, eta horretarako, beharrezkoa da epaileek aktetan nahitaez jasotzea gertakariei eta klub lehiakideek kasu bakoitzean egindako alegazioei buruz duten iritzia.

El uso del derecho establecido en el párrafo anterior, quedará siempre sometido al dictamen y resolución del Comité de Competición y Disciplina Deportiva, quién examinará las circunstancias concretas del caso, a cuyo efecto los árbitros/as deberán consignar necesariamente en las Actas su apreciación sobre los hechos y las alegaciones que al efecto expongan los representantes de los Clubes contendientes.

124. artikulua.- Talde biak prest egon behar dira partida aurrez ezarritako orduan hasteko; horrela ez balitz, ez bertaratzeari ezartzen zaion zigorra jasoko luke kasuan kasuko taldeak, ezinbesteko arrazoiren bat tarteko denean izan ezik. Dena dela, Lehiaketako Batzorde Nazionalak hartuko du horren guztiaren gaineko erabakia.

Artículo 124.- Los dos equipos tienen la obligación de estar dispuestos para comenzar el encuentro a la hora fijada, sancionándose, en caso contrario, como si se tratara de incomparecencia, salvo causas de fuerza mayor sobre las que dictaminará el Comité Nacional de Competición.

6. KAPITULUA. TALDEAK JOKALEKUTIK ALDE EGITEA

CAPÍTULO 6º. RETIRADAS DE LOS EQUIPOS DEL TERRENO DE JUEGO

125. artikulua.- Partida bat balio osoz hasi ahal izateko, indarrean dagoen Joko Araudi Ofizialak ezartzen duen gutxieneko jokalari kopurua izan behar du jokalekuan talde bakoitzak.

Artículo 125.- Para poder empezar válidamente un partido, cada uno de los equipos deberá tener en el campo el mínimo de jugadores/as que marca el Reglamento Oficial de Juego vigente.

Talde bat gutxienez baimendutako jokalari kopuruarekin baino gutxiagorekin agertuz gero, partida galduko du ez bertaratzeagatik eta kasu horretarako xedatzen denaren arabera jardungo da.

Cuando un equipo se presente con un número de jugadores/as inferior al mínimo autorizado, perderá el partido por incomparecencia y se procederá a tenor de lo dispuesto en esos supuestos.

126. artikulua.- Talde batek jokalekua uzten badu behin partida hasita dagoela, eta partida osorik jokatzea galarazten badu, edo talde baten jokaerak ezinezko egiten badu partida bat hastea, orduan, partida hori galdutzat emango zaio eta araudi honetan ez bertaratzeen kasurako zehazten dena ezarriko zaio talde horren klubari eta, gainera, Diziplinazko Araubidean zehazten diren zigorrak

Artículo 126.- Al Club, cuyo equipo se retire del terreno de juego una vez comenzado el encuentro, impidiendo que se juegue por entero, o por su actitud imposibilita el inicio se le dará éste por perdido, y se aplicará lo dispuesto para las incomparecencias en el presente Reglamento, y, además, se impondrán las sanciones previstas en el Reglamento de Régimen Disciplinario.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

ezarriko zaizkio.

Arestian adierazitakoa berdin ezarriko da jokalari guztiek batera uzten badute partida zein banan-banan uzten badute.

Lo contemplado anteriormente, se entenderá tanto si ésta se efectuase en bloque como si se produjese de uno en uno indisciplinadamente.

Talde batek jokalekua uzten duelako jarraitu ezin den partidako edo talde bateko jokalarien jokaeragatik jokatzen hasi ezin den partidako epaileen joan-etorrien gastuak eta dietak hori guztia eragin duen taldearen klubaren konturakoak izango dira.

Los gastos de desplazamiento y dietas de los árbitros/as del encuentro que no pueda continuarse por la retirada de uno de los equipos del terreno de juego o que esta actitud haya provocado su imposibilidad de comienzo, correrán a cargo del club a que pertenezca dicho equipo

127. artikulua.- Kirolaren garbitasuna errespetatzearren, partida ofizialetako emaitzak eta sailkapenak talde biek jokalekuan izan duten jokaera garbiaren ondorio izan behar dute, jokoaren jardun normalaz kanpoko aurretiko konbinazio edo esku-hartzerik gabe.

Artículo 127.- Por imperativo de respeto a la pureza del deporte, los partidos oficiales deben desarrollarse de modo que los resultados y las clasificaciones respondan verdaderamente a la limpia actuación de los equipos en el terreno de juego, sin previas combinaciones o manipulaciones extrañas a sus naturales contingencias.

Klubek erabat debekatuta daukate honako hau:

Queda rigurosamente prohibido a los Clubes:

1. Lehiaketa sistemaren bidez jokatzen den partida bateko puntuak aurkariari ematea, zuzenean edo zeharka.

1. Ceder directa o indirectamente los puntos al contrario en partido de competición que se juegue por este sistema.

2. Aurkari biek konpromisoko emaitza bat adostea.

2. Estipular entre los dos contendientes un resultado de compromiso.

3. Klubetakoa ez den hirugarren batek kudeaketak egitea taldeetako batekin partidaren emaitza aldarazteko xedearekin, bai hirugarren horren intereserako, bai beste baten intereserako.

3. Que otro ajeno a los Clubes, realice cerca de alguno de ellos gestiones que obedezcan al propósito de conseguir una alteración en el resultado de un partido, ya sea en interés propio, ya en el de tercero.

7. KAPITULUA. TALDEAK EZ AGERTZEA

CAPÍTULO 7º. INCOMPARECENCIAS DE LOS EQUIPOS

128. artikulua.- Ezinbesteko kasua denean izan ezik, eta Lehiaketako eta

Artículo 128.- Salvo caso de fuerza mayor, que apreciará el Comité de

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA Dirección de Deportes

Kirol-diziplinako Batzordeak erabaki behar du horrelakorik dagoen, bada, gainerako kasuetan, partida ofizial batera bertaratzen ez diren taldeek 10-0 galduko dute partida eta, gainera, bi puntu kenduko zaizkie sailkapen nagusian; zigor hori, dena dela, partida horri dagokion lehiaketaren fasean soilik ezarriko da, lehiaketa hainbat fasetan jokatzen bada, eta zigorra Diziplinazko Araudiaren arabera ezarriko da.

Competición y Disciplina Deportiva, los equipos que no comparezcan a un encuentro oficial, perderán el mismo por el resultado de 10 – 0; se descontarán, además, dos puntos de la clasificación general, que sólo se aplicará en la fase de la competición que corresponda el partido en cuestión, siempre que esa competición se juegue en varias fases; y serán sancionados de acuerdo con el Reglamento de Régimen Disciplinario.

Talde bat bigarren aldiz bertaratzen ez bada partida batera, edo azken hiru partidetako batean bertaratzen ez bada edo kategoria, berez, galduta daukanean, bertaratzen ez den klubak kategoria eta puntu guztiak galduko ditu automatikoki eta ezin izango da kategoria horretara itzuli hurrengo denboraldia igaro arte; zigor horrekin batera, Diziplinazko Araudiak zehazten dituen gainerako zigorrak ezarriko zaizkio.

Cuando la incomparecencia se produzca por segunda vez en una misma competición, o en uno de los tres últimos partidos o cuando tenga virtualmente perdida la categoría, el Club incomparecido perderá automáticamente la misma y toda su puntuación no pudiendo regresar a ella hasta transcurrida la temporada siguiente, imponiéndose las otras sanciones complementarias previstas en el Reglamento de Régimen Disciplinario.

Kanporaketa bidezko lehiaketa bada, une horretako fasea galdutzat emango zaio bertaratu ez den taldeari.

Siendo una competición por eliminatorias, se considerará perdida la fase de que se trate para el equipo incomparecido.

Autonomia-erkidegoko txapelketetako eskualde mailako fasetara edo finaletara aurkezten ez diren lurralde mailako taldeek, ezarritako epean eta eran parte-hartzeari uko egin ez badiote, zigorra jasoko dute: denboraldi batean parte hartzeko debekua, hain zuzen.

Los equipos territoriales que no se presenten a las fases zonales o finales de los distintos campeonatos de ámbito autonómica, y no hayan renunciado a su participación en tiempo y forma, serán sancionados con una temporada sin poder participar en los mismos.

129. artikulua.- Klub bat erretiratzen denean edo puntukako lehiaketa batetik kanporatzeko zigorra jasotzen duenean, klub horrek lehiaketan parte hartu ez duela ulertuko da eta, beraz, ez du beste taldeen aldeko edo kontrako punturik eragingo, erretiratzea edo kanporatzea lehiaketako azken hiru partidetan gertatzen denean izan ezik; kasu horretan, galdutzat emango zaizkio jokatzeko geratzen zaizkion partida guztiak, eta emaitza 10-0 izango da

Artículo 129.- A los efectos de establecer las clasificaciones cuando un Club se retire o sea sancionado con su exclusión de una competición por puntos, se considerará como si no hubiera intervenido en la misma, y, por tanto, no puntuará ni a favor ni en contra de los demás, salvo que la retirada o exclusión se produjera dentro de los tres últimos partidos de la competición, en cuyo caso, se le darán por perdidos los que faltasen por jugar, con el resultado de 10 – 0.

KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

guztietan.

Hainbat fase duten lehiaketetan, arestian adierazi dena bakarrik ezarriko da taldea erretiratzen den fasean edo txapelketatik kanpo uzten duten fasean.

En competiciones que se jueguen en varias fases, lo anterior será de aplicación solamente en la fase que se produzca la retirada o sanción de exclusión del campeonato.

130. artikulua.- Talde bat aurkezten ez bada berdinketak apurtzeko partidetara eta jokatzen hasi ondoren eten egin diren partidak edo ezinbesteko kausa dela-eta —zioak betiere arrazoituak eta arrazoizkoak badira— eten egin diren partidak errepikatzeko jokatzen diren partidetara, baldin eta aurkakoari gastuak eta eragozpenak ez eragiteko aurrerapen nahikoarekin jakinarazi badu aurkeztuko ez dela, orduan, gehienez ere hamabost (15) eguneko epea emango da partida horiek jokatzeko. Zio horiek aurrerapen nahikoarekin justifikatu ezean, edo partida batera ez bertaratzea epe barruan jakinarazten bada baina inolako arrazoirik eman gabe, zigorra ezarriko zaio, aurreko lerroaldeetan eta Diziplinazko Araubidean ezarritakoaren arabera.

Artículo 130.- En las incomparecencias a partidos de desempate y en las eventuales repeticiones de partidos suspendidos después de comenzados, o suspendidos en su día por causas de fuerza mayor, siempre que sean por causas motivadas y razonables, y que el equipo incompareciente lo avisara con tiempo suficiente para evitar gastos y molestias al contrario, se concederá un plazo máximo de quince (15) días para la celebración de dichos partidos. En caso de no justificar dichas causas con la mencionada antelación, o informar de su incomparecencia en dicho plazo sin acreditar causa alguna, se le sancionará conforme se indica en los párrafos anteriores y dispone el Reglamento de Régimen Disciplinario.

Kalte-galera ekonomikoak aztertu eta zenbatekoak diren erabakitzeko eskumena, ofizioz, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeari dagokio.

La competencia para entender y determinar la evaluación de los daños y perjuicios económicos corresponde, de oficio, al Comité de Competición y Disciplina Deportiva.

131. artikulua.- Talde antolatzailea bada bertaratzen ez dena, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordearen irizpidearen arabera, talde horrek joan-etorrien gastu guztiak ordaindu beharko dizkio kanpoko taldeari, partidara bai bertaratu zenari.

Artículo 131.- En el caso de incomparecencia del equipo organizador y según criterio del Comité de Competición y Disciplina Deportiva, éste deberá abonar los gastos de desplazamiento al equipo visitante que se personó.

Talde baten joan-etorrien gastuak zehazte aldera, gastuok konpentsazioa dela-eta zein arauzko beste edozein arrazoi dela-eta ordaindu behar badira, honela kalkulatuko dira: gehienez ere hamasei (16) pertsona hartuko dira kontuan, eta pertsona horiek 1. mailako

Para fijar los gastos de desplazamiento de un equipo, en caso de abono por compensación o en cualquier otro caso que sea preceptivamente reglamentario abonarlos, se calcularán a base de un máximo de dieciséis (16) personas, tanto a la ida como a la vuelta en ferrocarril de

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

trenean edo turista mailako aire-tarifarekin, indarrean dauden salneurrien arabera, egindako joan-etorria kostua kalkulatuko da, eta horri guztiorri eguneko dieta bat gehituko zaio, bidaia egiten duen pertsona bakoitzeko, Bizkaiko Eskubaloi Federazioak kasu horretarako une bakoitzean ezarrita dituen zenbatekoen arabera. Horretarako, dieta erdia bakarrik hartuko da kontuan talde 14:00ak ondoren irteten bada bizilekutik partidara joateko edo ordu horren aurretik ailegatzen bada bizilekura. Gainerako kasuetan, dieta osoa dela ulertuko da.

1ª clase o tarifa aérea clase turista en vigor, más una dieta diaria por persona que se desplace, calculada en función de los importes que para este caso tenga establecido la F.V.BM./B.E.F. correspondiente en cada momento. A estos efectos, se establece que solamente se considerará media dieta cuando la partida del lugar de residencia se efectúe después de las 14'00 horas, o cuando la llegada al mismo tenga lugar antes de dicha hora. En los demás casos, se estimará dieta entera.

Orobat, eta talde bat, antolatzailea edo bisitaria, justifikatutako arrazoirik gabe bertaratzen ez bada partida batera, jokatu ezin izan den partida horretako epaileen joan-etorrien gastuak zein dietak bertaratu ez den taldearen klubaren konturakoak izango dira.

Así mismo y en todos los casos de incomparecencia injustificada de un equipo, organizador o visitante, los gastos de desplazamiento y dietas de los árbitros/as del encuentro que no haya podido celebrarse por tal motivo, correrán a cargo del club a que pertenezca el equipo incomparecido.

X. TITULUA. LEHIAKETAK

TITULO X. COMPETICIONES

1. KAPITULUA. LEHIAKETA MOTAK ETA JOKATZEKO MODUA

CAPÍTULO 1º. CLASES DE COMPETICIONES Y MODO DE JUGARSE

132. artikulua.- Lehiaketak jokatzeko sistema bi daude: kanporaketa edo puntukako liga.

Artículo 132.- Las competiciones, podrán jugarse por el sistema de eliminatoria o por liga a puntos.

Lehiaketak, izaera berdinekoen artean daukaten graduaren arabera, hurrenkera koerlatiboko maila edo kategoriatan antolatuko dira.

En razón de su distinto grado dentro de los de igual carácter, se ordenarán en divisiones o categorías de orden correlativo.

Lehiaketetan parte har dezaketen jokalarien izaera dela eta, gizonezkoenak, emakumezkoenak edo mistoak izan daitezke.

Por la condición de los jugadores/as que puedan tomar parte en ellas, serán masculinas o femeninas, o mixtas.

Parte-hartzaileen adinaren arabera, honako kategoria hauek daude: seniorrak, gazteak, kadeteak, gaztetxoak, kimuak eta umetxoak.

Con respecto a la edad de los participantes, en seniors, juveniles, cadetes, infantiles, alevines y benjamines

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Kirol Zuzendaritza Nagusia
Kirol Zerbitzua
Departamento de Cultura
Dirección General de Deportes
Servicio de Deportes

133. artikulua.- Kanporaketa bidez jokatzen diren lehiaketak joka daitezke hala partida bakarrera, jokaleku neutralean edo lehiakideetako batenean, nola partida bira, lehiakide bakoitzaren jokalekuan bana.

Puntuka jokatzen diren lehiaketak itzuli batekoak zein bikoak izan daitezke, oro har, edo hiru edo lau itzulikoak, eta denek denen aurka jokatuko dute. Itzuli bakarrera eta puntuka jokatzen diren lehiaketetan, aukera dago partidak jokaleku neutralean jokatzeko edo zozketa bidez egokitzen den klubarenean; itzuli bira jokatzen diren lehiaketetan, aldiz, lehiaketa antolatzerakoan aintzat hartu behar da talde guztiak partida bat etxean eta bestea lehiakiderenean jokatu behar dutela.

134. artikulua.- Kanporaketa bidez jokatzen diren lehiaketak antolatzeko formula edo prozedura honako hau da: parte hartzen duen klub kopurua 4, 8, 16 edo biren beste edozein berretura denean, klub bakoitzari zenbaki bat emango zaio zozketa bidez, eta lehenengo kanporaketa 1 zenbakia duenak 2 zenbakia duenarekin jokatuko du, 3ak 4arekin, 5ak 6arekin, 7ak 8arekin, etab., eta horrela egingo da, hurrenez hurren, finalistak eta irabazlea erabaki arte.

Berdin da kanporaketa bidezko lehiaketa batean zenbat taldek eman duten izena, baina parte-hartzaileen kopurua biren (2) berretura (4, 8, 16, 32, 64, etab.) ez bada, kontuan hartu behar da lehenengo kanporaketa jokatu ondoren kopuru hori hasierako parte-hartzaile kopuruaren azpitik bik daukan hurrengo berreturara bihurtu behar dela, lehiaketak normal egin ahal izan dezan aurrera.

Hori lortzeko, zenbait talde lehenengo kanporaketa jokatzetik salbuetsiko dira,

Artículo 133.- Las competiciones por eliminatorias podrán jugarse, bien a partido único, en campo neutral o en el de cualquiera de los contendientes, o bien a doble partido, uno en cada campo de los adversarios.

Las competiciones por puntos podrán ser a una o dos vueltas, por norma general, o a tres o cuatro vueltas, por el sistema de todos contra todos. Para las competiciones por puntos a una sola vuelta será facultativo organizarlas de modo que los partidos se jueguen en campo neutral o en el del Club interesado que corresponda por sorteo, pero las competiciones a doble vuelta se ordenarán de forma que todos los clubes jueguen un partido en su campo y otro en el contrario.

Artículo 134.- La fórmula o procedimiento a seguir para la organización de las competiciones por eliminatorias, es la siguiente: cuando el número de clubes sea exactamente 4, 8, 16 o cualquier otra potencia de 2, se dará a cada club un número por sorteo, y jugará la primera eliminatoria el 1 con el 2, el 3 con el 4, el 5 con el 6, el 7 con el 8, etc., y así sucesivamente hasta dar los finalistas y el vencedor.

El número de equipos inscritos en una competición por eliminatorias es indiferente, pero hay que tener en cuenta que, cuando no sea potencia de 2, entonces 4, 8, 16, 32, 64, etc., será indispensable convertirlo mediante la primera eliminatoria en la potencia de 2 inferior a su número, para el desarrollo normal de la competición.

Esto se consigue dejando cierto número de equipos exentos de jugar la primera

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

taldeok eta lehenengo kanporaketako irabazleak batuta bigarren kanporaketarako nahi den talde kopurua lor dadin. Lehenengo kanporaketan zein talde geratuko den salbuetsita eta zenbat partida jokatuko diren erabakitzeko honako prozedura hau jarraituko da:

eliminatoria para que, unidos a los vencedores de los partidos a que se reduce dicha eliminatoria, den el número deseado para la segunda. El procedimiento para determinar el número de equipos exentos y de los partidos de que consta la primera eliminatoria, será como se indica a continuación:

Guztira dauden talde kopuruaren eta biren (2) berreturaren arteko aldeak jokatu beharreko partida kopurua emango du.

La diferencia entre el número total de equipos y la potencia de 2, inmediatamente dará el numero de partidos a jugar.

E salbuetsitako talde kopurua da; P lehenengo kanporaketan jokatuko den partida kopurua da; PS da izena eman duten talde kopuruaren goitik dagoen biren hurrengo berretura; NC da izena eman duen talde kopurua; eta PI da lehenengo kanporaketa partida kopurua. Bada, horiek guztiak kontuan hartuta, arestian azaldutako arau biak honela labur daitezke, eta honako hau da ezarriko dena:

Dirección de Deportes

federazioaren ordezkariaren gastuak erakunde antolatzaileak ordaindu behar ditu, lehiaketa bakoitzeko arau zehatzetan besterik ezartzen ez bada.

sector o finales serán por cuenta de la Entidad organizadora, a no ser que se disponga de otra forma en las normas específicas de cada competición.

149. artikulua.- Lurraldeko selekzioen lehiaketetan lehiaketa-araudian eta –oinarrietan zehaztuko da lehiaketa horietan zein selekziok hartuko duten parte.

Artículo 149.- En las competiciones de selecciones territoriales, participarán aquellos equipos que se determinen en la fórmula de competición de su normativa y bases correspondientes.

XI. TITULUA. EPAILEEK PARTIDETAN JARRAITU BEHARREKO ARAUDIA

TITULO XI. NORMATIVA DE LA ACTUACIÓN ARBITRAL EN LOS ENCUENTROS

1. KAPITULUA. EPAILEEN AGINTARITZA

CAPÍTULO 1º. AUTORIDAD DE LOS ÁRBITROS/AS

150. artikulua.- Partidetan zehar, epaileen erabakiak apelaezinak dira eta jokalariek, ofizial zuzendariek eta ikusleek epaileak babestu behar dituzte eta haien erabakiak obeditu behar, kirolaz kanpoko protesta edo eztabaidarik egin barik.

Artículo 150.- Durante los partidos, las decisiones de los árbitros/as son inapelables y tanto los jugadores/as, oficiales directivos y público están obligados a apoyarles acatando sus decisiones, sin protesta ni discusión alguna extradeportiva.

151. artikulua.- Epaileen eskumenak dira, batetik, Nazioarteko Eskubaloi Federazioak (IHF) argitaratutako Joko Araudi Ofizialak ezartzen dituenak; bestetik, araudi honetan zehazten direnak; eta, azkenik, lehiaketa bakoitzeko araudi zehatzetan ezartzen direnak.

Artículo 151.- Son competencias de los árbitros/as las establecidas en el Reglamento Oficial de Juego, editado por la Federación Internacional de Balonmano I.H.F. y lo preceptuado en este Reglamento, así como las que pudieran determinarse en las normativas específicas de cada competición.

152. artikulua.- Egoera aktiboan dauden epaileak, haien kategoria edozein dela ere, izena emanda dauden lurralde federazioaren mende daude, nahiz eta Epaileen Batzorde Teknikoak Estatuko edo autonomia-erkidegoetako lehiaketak zuzentzeko izenda ditzakeen kategoria hori duten epaileak; beraz, epaile guztiek lagundu behar dute lurraldeko lehiaketetan.

Artículo 152.- Los árbitros/as en situación activa, sea cual fuere su categoría, dependen de su Federación Territorial a la que se hallen inscritos y con independencia de los nombramientos que se les pueda designar por el Comité Técnico de Árbitros, a nivel de competiciones estatales o autonómicas para los que ostenten tal categoría, todos están obligados/as a cooperar en las respectivas competiciones de ámbito territorial.

a) Ondorioz, ezinbesteko arrazoia egotea

a) En consecuencia, no podrán rechazar

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

da partida bat zuzentzeko izendapenari uko egiteko zio bakarra; ezinbesteko arrazoia Zuzenbidean ezarritakoaren arabera egiaztatu behar dute eta berehala jakinarazi behar diote Epaileen Lurraldeko Batzorde Teknikoari.

un nombramiento de actuación más que por causas de fuerza mayor, que deberán probar conforme a derecho, circunstancia que deben comunicar inmediatamente a su Comité Territorial Técnico de Árbitros/as.

b) Epaile baten ukoa edo epaitzeko ezintasuna oso-oso berandu ezagutzen denez gero ezinezkoa bada ordezkoa denbora nahikoz abisatzea, eskuduna den batzordeak ordezkoa izendatzeko behar diren bitarteko guztiak jarri behar ditu, ordezko horren kategoria edozein dela ere.

b) Si la renuncia de un árbitro/a, o la imposibilidad de arbitrar se conociera tan a última hora que no fuese posible avisar con tiempo al que correspondiera sustituirle, el Comité competente procurará por todos los medios nombrar al sustituto, independientemente de la categoría a la que pertenezcan.

c) Edozein arrazoi dela eta, dagokion batzordeak ez badu epailerik izendatu edo izendatutakoak partidara agertzen ez badira edo ezin badute lanik egin, honako hau egingo da:

c) Cuando por cualquier circunstancia no se hubieran hecho los nombramientos de los árbitros/as por el Comité correspondiente, o los nombrados no comparecieran o no pudiera actuar, se procederá como sigue:

1.- Izendatutako epaile bietatik bakarra badoa partidara eta kategoria bereko beste epaile bat badago partida ikusten, laguntzeko eskatuko zaio epaile horri, bi egon daitezen; baina parte hartzeari uko egiten badio eta ikusleen artean beste epailerik ez badago, izendatutakoen artean partidara joan den epaileak zuzenduko du partida.

1.- Si de la pareja designada, sólo se presenta uno de ellos, y se encuentra presente un árbitro/a de la misma categoría, se solicitará su concurso para completar su pareja; de negarse éste o no haber ninguno presente, dirigirá el encuentro el designado/a que se hubiera presentado.

Klub biak ados egonez gero, goragoko edo beheragoko kategoria bateko beste epaile batek ere lagun diezaioke bertaratu den epaileari. Dena dela, klubak ados ez badaude, bertaratu den epaileak berak bakarrik zuzenduko du partida.

También podrá admitirse el concurso de un árbitro/a presente de superior o inferior categoría, si existe previo acuerdo entre ambos Clubes. De no haberlo actuará solo el árbitro/a presentado.

2.- Izendatutako epaile bietako bat ere ez badoa partidara eta partidaren kategoria bereko epailerik ez badago ikusleen artean, partida bertan behera geldituko da; dena dela, partida jokatu behar duten klubek aurretik adostuta izan dezakete nortzuk izan daitezkeen partida zuzentzeko pertsona egokiak, baina horrelakorik adosten badute, klubak

2.- De no presentarse ninguno de los árbitros/as designados, y no se hallaren presentes árbitros/as de la categoría del encuentro, será suspendido el mismo, a no ser que exista previo acuerdo de los Clubes contendientes sobre la persona o personas que puedan dirigir el encuentro, con el apercibimiento de que no podrá presentarse reclamación alguna sobre la

GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

ohartuta daude eta badakite gero ezin dutela aukeratutako pertsonaren jardunari buruzko erreklamaziorik aurkeztu. Kluben aurreko adostasuna partida hasi aurretik idatziz jaso behar da, eta agiri hori talde bietako ordezkariek eta kapitainek izenpetu behar dute.

actuación de la persona elegida. El previo acuerdo entre los Clubes deberá formalizarse por escrito antes de iniciarse el encuentro, recogiéndose en el mismo la firma de los delegados/as y capitanes de ambos equipos.

d) Epaileetako bat ustekabean gaixotzen bada, beste epaileak amaituko du partida. Epaile biak gaixotuko balira, artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan ezartzen denaren arabera erabakiko da.

d) Si durante un partido se indispusiera repentinamente un árbitro/a lo finalizará el otro. Si se indispusieran los dos árbitros/as se procederá de acuerdo con lo establecido en el punto 1 y 2 del apartado anterior de este mismo artículo.

153. artikulua.- Epaile bat partidan zehar partziala dela uste arren, klub bateko jokalariek eta ofizialek ez dute eskubiderik protestatzeko eta epaileak jokalekuan hartzen dituen erabakiak eztabaidatzeko. Eskuduna den kirol-agintariak hasiko du eman beharreko ebazpena emateko beharrezkoa den espedientea.

Artículo 153.- La presunción de parcialidad de un árbitro/a durante un partido no da derecho a los jugadores/as y oficiales de un Club a protestar ni discutir sus resoluciones en el terreno de juego. La autoridad deportiva a quien competa incoará el oportuno expediente para la resolución que corresponda.

2. KAPITULUA. PARTIDAK ZUZENTZEA

CAPÍTULO 2º. DIRECCIÓN DE LOS ENCUENTROS

154. artikulua.- Epaile-taldea honako hauek osatuko dute: epaile bik —partidak zuzentzeko ardura dute— eta haien laguntzaileek (idazkaria eta kronometratzailea).

Artículo 154.- El equipo arbitral estará compuesto por los árbitros/as, que han de dirigir los encuentros y sus auxiliares (anotador/a y cronometrador/a).

Epaile-taldea gutxienez partida hasi baino ordubete lehenago joan behar da jokalekura, jokalekua ikuskatu eta lehiatuko diren taldeetako jokalarien zerrendak egiaztatzearren.

Dicho equipo arbitral deberá personarse en los terrenos de juego al menos una hora antes del comienzo del encuentro para el cual ha sido designado, con el fin de inspeccionar las mismas y comprobar las alineaciones de los equipos contendientes.

155. artikulua.- Lagunarteko partidak edo partida ofizialak zuzenduko dituzten epaileak Bizkaiko Eskubaloi Federazioko Epaileen Batzorde teknikoak izendatuko ditu. Horretarako, kategoria bakoitzeko plantilla ofiziala argitaratuko da, eta hortik izendatuko dira partida bakoitza zuzendu behar dutenak.

Artículo 155.- Los nombramientos de los árbitros/as que ~~hayan de dirigir~~ encuentros amistosos u oficiales, los designará el Comité Técnico de Árbitros/as de la Federación Vizcaína de Balonmano. Para tal fin se publicará la Plantilla Oficial de cada categoría de entre los que se designarán los que han

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA SAILA Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA Dirección de Deportes

de dirigir cada partido.

Izendapena argitaratzen ez bada, jardunean dauden epaileek ezin dute eskubaloi partidarik zuzendu, Araudian zehazten diren ezinbesteko arrazoiak gertatzen direnean izan ezik.

Sin la designación o nombramiento expuesto, ningún colegiado/a en activo podrá dirigir encuentros de balonmano, salvo los casos de fuerza mayor que contempla el Reglamento.

156. artikulua.- Promozioko partida guztiak lehiatzen diren taldeen erkidegoko baino beste bateko epaileek zuzenduko dituzte eta, gainera, talde horien baino goragoko kategoriako epaileen plantillakoak izan behar dute.

Artículo 156.-Todos los encuentros de Promoción, serán dirigidos por árbitros/as de distinta Comunidad a los equipos contendientes, y encuadrados en la plantilla arbitral de la categoría superior de los participantes.

157. artikulua.- Kronometratzaileak eta idazkariak Bizkaiko Eskubaloi Federazioak izan behar dute, eta dagokion lurraldeko Epaileen Batzorde Teknikoak izendatuko ditu.

Artículo 157.- El Cronometrador/a y el Anotador/a pertenecerán a la Federación Vizcaína de Balonmano y serán designados por el Comité Técnico Territorial de Árbitros correspondiente.

Lehiaketan zehar, Epaileen Lurralde Batzorde Tekniko batek ez baditu partida bitan jarraian kronometratzailea eta/edo idazkaria izendatzen, orduan, Bizkaiko Eskubaloi Federazioko Epaileen Batzorde Teknikoak zuzenean izendatuko ditu.

Si durante el transcurso de la Competición dejaran de designarse Cronometrador y/o Anotador en dos partidos por un mismo Comité Técnico Territorial de Árbitros/as, éstos serán nombrados directamente por el Comité Técnico de Árbitros/as de la F.V.BM./B.E.F.

158. artikulua.- Partidetako epaileek akta NAHITAEZ bidali BEHAR dute Bizkaiko Eskubaloi Federaziora, albait arinen eta prozedura bizkorrena erabiliz. Horretarako, PRESAZKO POSTA erabili behar dute, partida amaitu bezain laster edo, bestela, eskura eman behar dute partidaren biharamunean federazioaren bulegoetan.

Artículo 158.- Los árbitros/as de los encuentros tienen la OBLIGACIÓN INELUDIBLE de hacer llegar el Acta de los partidos a la Federación Vizcaína de Balonmano lo antes posible y por el procedimiento más rápido, por lo que deberán enviarlas por CORREO URGENTE, nada más finalizar el partido o entregarlas en mano al día siguiente en los locales de la Federación.

Zabalkundea prentsa, irrati eta telebistan egiteko, epaileek, partida amaitu bezain laster, NAHITAEZ jakinarazi BEHAR diote federazioari, telefonoz edo faxez, zein izan den zuzendu duten partidaren emaitza, eta betiere beren-beregi adierazitako bideak erabili behar ditu.

Para la labor de divulgación en Prensa, Radio y Televisión, los árbitros tienen la OBLIGACIÓN INELUDIBLE de comunicar telefónicamente o por fax nada más finalizar el encuentro a la Federación, el resultado del partido que hayan dirigido, debiendo utilizar los medios que se comunicarán expresamente.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA Dirección de Deportes

Partida bateko epaileek ez badute akta denbora eta modu egokian bidaltzen edo ez badute telefonoz jakinarazten partidaren emaitza, derrigorrezkoa den arren, horren guztiaren berri eman behar zaio Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeari, araudiaren arabera jardun dezan.

Cuando los árbitros/as de un encuentro no envíen el Acta del mismo, en tiempo y forma o no comuniquen telefónicamente el resultado del partido, como es preceptivo, se informará al Comité de Competición y Disciplina Deportiva, para que proceda de acuerdo con el Reglamento.

3. KAPITULUA. AKTAK, TXOSTENAK ETA PROTESTAK

CAPÍTULO 3º. ACTAS, INFORMES Y PROTESTAS

159. artikulua.- Epaileek jokatzen diren partida guztien akta jaso behar dute, bai lehiaketakoena bai txapelketa ofizialekoena; akta horiek epaileek eta talde bakoitzeko ofizial arduradunek izenpetu behar dituzte, eta azken horien aktan jaso behar dira. Aktak inprimaki ofizialean egin behar dira, eta partida hasi aurretik izenpetu behar dira jokalekuan egon daitezkeen jokalarien eta ofizialen zerrenda egin eta gero; dena dela, eta partidan zehar gorabeherarik egon bada, talde bakoitzeko ofizial arduradunek partida amaitutakoan ere izenpetu ditzakete aktak.

Artículo 159.- De todos los partidos de campeonato o competición oficial que se celebren, deberán extenderse acta por los árbitros/as, firmada por éstos y por los oficiales responsables de cada equipo, que deberán obligatoriamente figurar en el acta. Las actas se extenderán en el impreso oficial y se firmarán antes del comienzo del encuentro, una vez relacionados los jugadores/as y oficiales que puedan estar en el terreno de juego, pudiendo, además, ser firmadas al finalizar el mismo por los oficiales responsables de cada equipo en el supuesto de que hubiera habido incidencias.

Partidako akta egin aurretik eta talde bakoitzak jokalarien zerrenda aurkezten duenean, epaileek taldeetako arduradunei galdetuko diete taldeko ofizial lizentzia duten pertsonek zein kargu beteko duten partidan zehar, eta aktan jasoko dute erantzuna.

Antes de la confección del Acta de partido y en el momento de presentar cada equipo la relación de jugadores(as), los Árbitros(as) pedirán a cada uno de los/as responsables de los equipos, que cargos ejercerán durante el encuentro las personas que tengan licencias de "Oficial de Equipo", consignándolo en dicho Acta de partido.

Epaileei zalantzarik sortuz gero jokalarien eta ofizialen lizentziek lizentziok baliozkoak direla edo indarrean daudela ziurtatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzeari buruz, aktan jaso behar dute zalantza hori, eta zalantza eragiten dutenen izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionala edo pasaportea jaso behar

Si a los árbitros/as surgieren dudas sobre si la licencia de alguno o algunos de los jugadores/as y oficiales no reunieran los requisitos necesarios para acreditar su validez o vigencia, lo expresarán así en el acta, haciendo constar los nombres y apellidos de los afectados/as y Documento Nacional de Identidad o

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

dituzte; ondoren, sinatu egin behar dute zalantza eragin dute horiek.

Pasaporte de los mismos, quienes firmarán a continuación.

Jokalari eta ofizialetakoren baten fitxa aurkezten ez bada, aurreko izapide guztiak bete behar dira. Horretarako, aurretik, identifikatu behar da nor den interesduna edo interesdunak, eta azken horiek, derrigorrean, nortasun-agiri nazionala edo pasaportea aurkeztu behar dute, eta agiriaren zenbakia partidako aktan jaso behar da. Horrekin batera, jokalariaren lizentzia tramitatzen dagoela egiaztatzen duen federazioaren agiri ofiziala ere aurkeztu behar dute, jokalariaren taldeak eskura baldin badauka, eta betekizun hori bete ezean ezin izango dira jokalarien zerrendan sartu.

En caso de no presentarse la ficha de alguno de los jugadores/as y oficiales, se cumplimentarán asimismo los trámites anteriores, previa identificación del interesado/a o interesados/as que, necesariamente, habrán de presentar el Documento Nacional de Identidad o Pasaporte, consignando su número en el acta del partido y documento oficial de la Federación que certifique la tramitación de la licencia en el caso de tenerlo en su poder el equipo a que pertenezca, sin cuyo requisito no serán autorizados a alinearse.

Baimena izan gabe zerrendan sartzen den jokalariak eta/edo ofizialak parte-hartze ez zuzena egingo du.

El jugador/a y/o Oficial que se alinee sin la correspondiente autorización, incurrirá en participación incorrecta.

160. artikulua.- Orobat, epaileek labur jasoko dituzte aktan, baina argiro, partidan zehar eta partidari lotuta gertatutako gorabehera guztiak, batez ere epaileen agintearen aurkako faltak, jokalarien arteko edo jokalarien arteko erasoak eta irainak, epaileek hartutako erabakiak, denboran egindako deskontuak eta luzapenak, etab. Gertaerak labur azaldu behar dituzte, eta ez dute haiei buruzko iritzirik eman behar. Jokalarien arteko erasorik badago, erasoa nork hasi duen adierazi behar dute, eta bereizi egin behar dute erasoa eta kontuan hartu beharreko falta. Epaile nagusiak ikusi ez arren, epaile laguntzaileak jokalariek egindako faltak ikusten badituzte, berehala jakinarazi behar dizkio epaileari.

Artículo 160.- Asimismo, los árbitros/as consignarán en las actas someramente, pero con absoluta claridad cuantos incidentes ocurran durante el partido y con relación a su desarrollo, especialmente los casos de faltas contra la autoridad arbitral, agresiones u ofensas entre o contra los jugadores/as, determinaciones adoptadas, descuentos de tiempo y prórrogas, etc., limitándose a referir, escuetamente, los hechos pero absteniéndose de calificarlos. En los casos de agresiones entre jugadores/as cuidarán de señalar de quien partiera la iniciativa, distinguiendo ésta de la falta que debe considerarse. Los/as auxiliares que observen faltas de los jugadores/as que no hayan sido vistas por los árbitros/as, las pondrán inmediatamente en conocimiento de éstos.

161. artikulua.- Aurreko lerroaldean aipatzen diren gorabeherak lagunarteko partida batean gertatzen badira, lehiaketa ofizialeko partida batean izango luketen

Artículo 161.- Cuando los incidentes aludidos en el párrafo anterior ocurrieran en un partido amistoso, los árbitros/as procederán exactamente igual que si se

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA Saila
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

jokaera bera izan behar dute epaileek.

Partida ofizial batean epaileek ikusiko balute ikusleek edo talde baten zaleek modu erabat ez-zuzenean jokatu dutela edo ageriko bortxa egin diotela talde bati beste baten alde; jokalekuak arauzko akatsak dituela, jokalarientzat arriskutsuak izan litezkeenak; epaileen aldagelan gabeziak daudela; zuzendariek ez dutela epaileen agintea errespetatu eta, hala behar denean, babestu; laguntzaileek ez dutela epaileek esandako bete modu leial eta inpartzialean; edo antzeko beste edozein gertakari izan dela; bada, horrelako zerbait gertatuz gero, aktan jaso beharko lukete edo, espaziorik ez badago, gertakariak labur azalduko lituzkete aktan eta haren eranskinean azalduko lituzkete gertakariok; eranskin hori ere federaziora bidali behar da araudi honek ezartzen duen epe beraren barruan.

Akta eta, horrelakorik badago, eranskina, Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeak hartu behar dituen erabakiak funtsatzeko oinarri garrantzitsuenetakoa eta dokumentu-bitartekoa dira.

Epaileek eta federazioko ordezkariek idatziz egiten dituzten adierazpenak egiazkotzat joko dira, ageri-ageriko akatsa edo organo eskudunek egiaztatutako akatsa dagoenean izan ezik.

Epaileek zehatz-mehatz bete behar dute agiri horiek idazteari buruz xedatzen dena, eta, beraz, epaileek zigorra jasoko lukete Diziplinazko Araudian ezartzen denaren arabera, baldin eta ez balituzte agiriotan jasoko artikulu honetan eta aurrekoan zehazten denaren arabera ezagutarazi behar dituzten egintzak, eta

tratara de competición oficial.

Siempre que con ocasión de un partido oficial los árbitros/as apreciaran que el público o los partidarios de uno de los equipos se hayan producido en forma gravemente incorrecta o ejercido coacción manifiesta de uno de los equipos en beneficio del otro; que el terreno de juego ofreciera defectos reglamentarios que puedan traducirse en peligro para los jugadores/as; que existan deficiencias en el vestuario de los árbitros/as; que los directivos/as no hayan respetado, y en caso preciso, amparado su autoridad; que los/as auxiliares no le hayan secundado leal o imparcialmente; o que se hubiese producido cualquier hecho de naturaleza análoga, lo consignarán en el acta, o, a falta de espacio disponible, harán en ella una sumaria alusión a los hechos, remitiéndose el anexo que, como el acta, deberán enviar a la Federación dentro del mismo término que señala el presente Reglamento.

Constituyendo el acta, y en su caso el anexo de los árbitros/as una de las bases fundamentales y medio documental necesario para las decisiones que haya de adoptar el Comité de Competición y Disciplina Deportiva.

Las declaraciones de los árbitros/as y delegados/as federativos, que se formulen por escrito, se presumen ciertas, salvo error materialmente manifiesto o probado por los órganos competentes.

Es indispensable el riguroso cumplimiento de lo dispuesto con respecto a la redacción de dichos documentos por los árbitros/as, y, por tanto, siempre que estos dejaran de consignar en ellos actos de los cuales han de dar conocimiento en virtud de lo preceptuado en este artículo y en el

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

baldin eta kasuan kasuko batzordeek iritziko baliote zenbait egintza agiriotan jasotzekoak zirela edo jokalekuan ez zutela behar besteko zigorra hartu.

anterior, y si se apreciara, a juicio de los Comités correspondientes, que merecían ser señalados, o que no fueron debidamente sancionados en el terreno de juego, los árbitros/as serán castigados con arreglo a lo dispuesto en el Reglamento de Régimen disciplinario.

Orobat, epaileek partidako aktan jaso behar dute talde bakoitzean beheragoko kategorietako lizentziekin jokatzen duten jokalarien dortsal-zenbakia, zein taldekoak diren, haien NAN zenbakia eta jaiotze-data ere bai. Era berean, aktan jaso behar dute partida horretako mailakoak baino beste maila bateko fitxak aurkezten dituzten taldeko ofizialen, entrenatzaileen edo entrenatzaile-laguntzaileen NAN zenbakia, kategoria eta lizentzia mota.

Igualmente los árbitros/as deberán hacer constar en el Acta de partido el número de dorsal de aquellos jugadores/as de cada uno de los equipos, que presente licencias de categorías inferiores, indicando la categoría del equipo a que pertenecen, número de su D.N.I. y fecha de nacimiento de cada uno de ellos. Del mismo modo deberán indicar en el acta el número del D.N.I. y la categoría y clase de la licencia de aquellos/as "Oficiales de Equipos", "Preparadores" o "Ayudantes de Preparador" que presenten fichas de categoría distinta a la del encuentro.

162. artikulua.- Lehiaketako partidetan, jatorrizko akta eta hiru kopia egin behar dira. Jatorrizkoa Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeari helaraziko zaio; lehenengo kopia, Epaileen batzorde Teknikoari; bigarrena, aktan lehenengo adierazi den taldeari; eta hirugarrena, berriz, aktan bigarren adierazi den taldeari.

Artículo 162.- En los partidos de competición, se extenderán el original y tres copias de las actas. El original se remitirá al Comité de Competición y Disciplina Deportiva de la Federación Vizcaína de Balonmano; la primera copia al Comité Técnico de Árbitros y Arbitras, la segunda copia al equipo nombrado en primer lugar y la tercera al equipo nombrado en segundo lugar.

163. artikulua.- Epaileek, partida amaitzen denean, bakoitzari dagokion akta emango diete klubei, baldin eta aktan jaso beharreko gorabeherek edo epaileei eurei gertatutako gorabeherek ez badute akta ez ematea justifikatzen. Gainerako aktak, berriz, dagozkion hartzaileei bidaliko dizkiete, PRESAZKO prozeduraren bitartez, araudi honetan zehazten denaren arabera, behin partida amaitutakoan, edo, bestela, eskura emango dute federazioan bertan, hurrengo hogeita lau (24) orduen barruan. Federazioko agintariek eskatu beste kopia emango dira; eta dagokionak

Artículo 163.- Los árbitros/as entregarán a los Clubes la copia del acta que les corresponda a la terminación de los partidos, siempre que los incidentes que en la misma deban consignar o los ocurridos a ellos mismos, no justifiquen de abstenerse de hacerlo, y enviarán las demás a sus respectivos destinos por el procedimiento de URGENCIA, según lo dispuesto en el presente reglamento, después de finalizado el encuentro, o la entregarán en mano dentro de las veinticuatro (24) horas siguientes en la Federación. De las actas se expedirán, por quienes corresponda cuantas copias

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA Dirección de Deportes

emango ditu. Justifikatutako arrazoiak direla eta, epaileek ez badituzte aktak ematen partida amaitutakoan, klub interesdunei helarazi behar dizkiete egun berean bertan.

se pidan por las autoridades federativas. Cuando por causas justificadas, las actas no se entreguen por los árbitros/as a la terminación del partido, deberán hacerlas llegar a poder de los clubes interesados dentro del mismo día.

Denbora tarte berean, epaileek Bizkaiko Eskubaloi Federazioari eman edo hara bidali behar dute aktari egiten dizkioten eranskinak edo aktari gehitzen dioten guztia.

En igual tiempo, deberán entregar o enviar los árbitros copia de todo anexo o ampliación que formulen separadamente del Acta a la F.V.BM./B.E.F.

Nolanahi ere, eta baldin eta behar bezala justifikatzen bazaio organo eskudunari ezinezkoa izan dela akta, eranskina eta/edo akta zabaltzeko agiriak aurreko lerroaldeetan zehazten diren epeen barruan ematea klub interesdunei, bada, orduan, epaileek kopia bana helaraziko dizkiete partidan lehiatu diren klubei fax bidez, aurrerapen gisa, eta kopia horien jatorrizko agiriak, berriz, bitarteko azkarrena erabilita bidaliko zaizkie, gehienez ere hogeita lau orduko epean. Horretarako, epaileek beti izan behar dituzte epaituko duten partidan parte hartuko duten klubek eskutitzak jasotzeko dauzkaten helbideak.

No obstante, y siempre y cuando se justifique debidamente ante el órgano competente la imposibilidad de entregar el Acta, Anexo y/o informe ampliatorio a los Clubes interesados en los plazos indicados en los párrafos anteriores, los árbitros/AS adelantarán una copia por medio de fax a los Clubes contendientes, y los originales de dicha copia los enviarán por el medio más rápido y en el plazo máximo de veinticuatro horas. Para lo cual deberán tener siempre los datos de correspondencia de cada uno de los Clubes participantes en el encuentro que tienen que arbitrar.

164. artikulua.- Taldeetako ofizial arduradunek eskubidea dute protestak edo salaketak egiteko, jokalarien egoera legalari, jokalekuaren egoera txarrari, jokalekuaren markei, publikoaren jarrerari, eta abarri buruzkoak. Protesta edo salaketa horiek epaileen bitartez egin behar dituzte, eta azken horiek argi idatziko dituzte, labur bada ere. Ondoren, erreklamazioa aurkezten dutenek behean sinatu behar dituzte dilijentzia horiek, hurrengo artikuluetan ezartzen denerako izan ezik.

Artículo 164.- Los/as oficiales responsables de los equipos tienen derecho a formular en el acta protestas o denuncias sobre la situación legal de los jugadores/as, mal estado de terreno de juego, marcaje del mismo, conducta del público, etc., por mediación de los árbitros/AS que las redactarán en forma clara pero escueta, firmando los reclamantes al pie de tales diligencias, excepto lo previsto en los artículos siguientes.

165. artikulua.- Klub batek egoki irizten badio, izan diren gorabeherei buruzko txostena egin dezake, erreklamazioak aktan bertan berretsi ditzake edo aurkariak egindakoei erantzun, egoki

Artículo 165.- Cuando un club lo considere procedente, podrá elevar informe sobre los incidentes que se hubieran producido, ratificar las propias reclamaciones en el acta o contestar a

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

iritziz gero. Horretarako guztirako, idazki bat bidali behar dio Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordeari partida amaitu eta hurrengo berrogeita zortzi (48) orduen barruan. Idazkian, modu objektiboan eta zuzentasunez azaldu behar ditu erreklamazio egilearen iritziz epaileek egin dituzten akatsak edo edozein motatako hutsak; gainera, eta egoki iritziz gero, akats edo huts horiek partidan zehar eragindako gorabeherak gehitu ditzake.

las del contrario, si así lo estima oportuno, mediante escrito dirigido al Comité de Competición y Disciplina Deportiva, dentro de las cuarenta y ocho (48) horas siguientes a la del partido, y en el que expondrá de un modo objetivo, y en términos absolutamente correctos los errores o deficiencias de cualquier orden en que, a su entender, hayan incurrido los árbitros/as, ampliando, si así lo estima necesario, los detalles de las incidencias ocasionadas durante el partido.

166. artikulua.- Klubek haiek zuzenean parte hartu ez duten partidak direla-eta egiten dituzten erreklamazioak Lehiaketako eta Kirol-diziplinako Batzordearen esku egon behar dira protesta eragin duen partida jokatu eta hurrengo zazpi (7) egunen barruan. Epe hori eta gero ez da inolako protesta edo erreklamaziorik onartuko.

Artículo 166.- Las reclamaciones de los clubes en relación con las incidencias de partidos en los que no hayan intervenido directamente, deberán obrar en poder del Comité de Competición y Disciplina Deportiva dentro de los siete (7) días siguientes a la fecha de celebración del partido a que la protesta se refiera. Transcurrido el plazo indicado no se admitirá protesta ni reclamación de clase alguna.

Protesta eta salaketak aurkezteko epea amaitu bada, ezin da beste protesta edo salaketarik aurkeztu, ez eta aktan edo epaileen txostenean edo klub erreklamazio egileak aktari egindako areagotzean agertzen ez diren gertakari batzuei buruzko aipamenik egin ere.

Expirado el plazo establecido, no se podrán presentar nuevas protestas ni denuncias, ni referirse a otros hechos que los que consten en el acta o en el informe de los árbitros/as, o en la ampliación del que preceptivamente haya formulado el Club reclamante.

XII. TITULUA.
NAZIOARTEKO ETA LURRALDE ARTEKO PARTIDAK

TITULO XII.
PARTIDOS INTERNACIONALES E INTERTERRITORIALES

167. artikulua.- Bizkaiko Eskubaloi Federazioko Zuzendaritza Batzordeak, beste lurralde eta autonomia-erkidego batzuetako federazioekin bat, eta goragoko kirol-erakundeen eta agintarien baimenarekin, egoki irizten dizkion lurralde arteko eta nazioarteko partidak hitzartuko ditu, eta lehiaketen egutegiak partida horien arabera egokituko ditu.

Artículo 167.- La Junta Directiva de la Federación Vizcaína de Balonmano, de acuerdo con las Federaciones de otros Territorios y Autonomías, y previa autorización de los organismos deportivos y autoridades superiores, concertará los partidos interterritoriales o internacionales que estime convenientes, y en su virtud adaptará los calendarios de las competiciones a tales circunstancias.

168. artikulua.- Denboraldiko egutegiak

Artículo 168.- Siempre que sean

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA Dirección de Deportes

prestatzen direnean jakina bada noiz jokatuko diren nazioarteko partidak, egutegian jasoko dira; baina ez badago aurretik jakiterik noiz jokatuko diren, berriz, zenbait egun gordeko dira egutegian, behin-behinean, nazioarteko partidak hartzeko aukera gehien dutenak, hain zuzen ere, eta entrenatzeko beharrezkoak izan daitezkeen egunak ere kontuan hartu behar dira.

conocidas las fechas de partidos internacionales al establecerse los calendarios correspondientes a la temporada, se fijarán en los mismos; pero si aquellas no estuvieran previamente señaladas, se reservarán provisionalmente en los calendarios los que se estimen prudencialmente probables, incluidas las que considere necesarias para entrenamientos.

169. artikulua.- Aurreko artikuluan adierazten diren egunez aparte, Bizkaiko Eskubaloi Federazioko Batzorde Teknikoak beharrezko irizten dien lanegunak erabil ditzake federazioak. Horrela eginez gero, artikulu horretan ezartzen den besteko aurrerapenarekin jakinarazi behar du zein lanegun erabiliko diren, hautatutako jokalariek berrikusketa, kontzentrazio, prestakuntza-proba eta taldeko entrenamendurik edo jokalari bakoitzaren taldearen partidarik duten egiaztatu ahal izan dadin.

Artículo 169.- Además de las fechas del calendario indicadas en el artículo anterior, la Federación Vizcaína de Balonmano podrá utilizar los días laborables que su Comité Técnico considere necesarios, y que anunciará con la misma antelación prevista en el citado precepto para verificar revisiones, concentraciones, pruebas preparatorias y entrenamientos por grupos o partidos de conjunto de los jugadores/as seleccionados.

170. artikulua.- Bizkaian federatutako talde guztiek Bizkaiko Eskubaloi Federazioari utzi behar dizkiete beren jokalekuak, federazioak erabakitzen badu klub bateko jokalekua erabiliko duela Bizkaiko taldea prestatzeko edo entrenatzeko partidetarako edo federazioak antolatzen duen beste edozein antzeko partidatarako. Klubek kalte-ordain bakarra jasoko dute: instalazioak erabiltzeak eragindako gastuei —langileka, zerbitzuak, etab.— dagokiena, hain zuzen ere.

Artículo 170.-Todos los Clubes federados tienen la obligación de ceder sus terrenos de juego a la Federación Vizcaína de Balonmano cuando ésta disponga de ellos para partidos, de preparación o entrenamiento del Equipo de Bizkaia o cualesquiera otros semejantes organizados oficialmente por ella, sin derecho a otra compensación que la que suponga el importe a que ascienden los gastos que lleve implícita la utilización de las instalaciones, tales como personal, servicios, etc.

Bizkaiko selekzioetako batek jokatzen dituen partidak jokatzen diren lekuetara jendea sartzea mugatu ahal izango da, erakunde antolatzaileak eta Bizkaiko Eskubaloi Federazioak sinatutako hitzarmenaren arabera betiere.

En los encuentros que celebre cualquiera de las Selecciones de Bizkaia, se podrá limitar el libre acceso de personas a las instalaciones donde se jueguen, conforme al convenio firmado entre la Entidad organizadora y la F.V.B.M./B.E.F.

171. artikulua.- Lizentzia indarrean duten epaile guztiak behartuta daude lurraldeko ekipoen partidak —lagunartekoak edo

Artículo 171.- Todos los Árbitros/as con licencia en vigor tienen la obligación de participar en los partidos oficiales

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

entrenatzekoak— zuzentzera, baldin eta horretarako izendatzen badituzte.

amistosos o de entrenamiento de los Equipos Territoriales para los que sean designados.

Partida ofizialetan, Bizkaiko Eskubaloi Federazioak erabakiko ditu arbitraje-gastuen baldintzak.

En los partidos de carácter Oficial, las condiciones de gastos de arbitraje serán estipuladas por la Federación Vizcaína de Balonmano / Bizkaiko Eskubaloi Federazioa (F.V.BM./B.E.F.).

Bizkaiko Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lagunarteko edo entrenatzeko partidetan, berriz, ez da arbitraje-eskubiderik egongo, baina kontuan hartuko dira, aldiz, joan-etorrien gastuak.

En los partidos amistosos o de entrenamiento, que organice la F.V.BM./B.E.F., no se contemplará el concepto de Derechos de Arbitraje y sí de los gastos de desplazamiento.

XIII. TITULUA. GATAZKAK JUDIZIOZ KANPO EBAZTEA

172. artikulua.- Federazioaren eta federatuen edo federazioko kideen artean eta federazioko kideen euren artean diferentziarik edo auzigairik sortuz gero, Zuzenbideko tartekaritzaren bidez ebatziko dira. Auzigaiok ebazteko, indarrean dagoen legedian, Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren estatutuetan eta estutuok garatzeko araudian ezartzen denari begiratuko zaio.

173. artikulua.- Tartekaritzaren bitartez edo, oro har, gatazkak judizioz kanpo ebazteko prozeduraren bitartez ebatz daitezkeen diferentziak edo auzigaiak Kirol Tartekaritzarako Euskal Auzitegiak ebatziko ditu.

174. artikulua.- Federazioko kideek lizentzia lortzen duten egunetik aurrera hilabeteko epean ez badiote beren-beregi uko egiten, kideok federazioaren estatutuetan eta horiek garatzeko araudian ezartzen den tartekaritza-sistemaren eta gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren menpe daudela ulertuko da.

TITULO XIII. RESOLUCIÓN EXTRAJUDICIAL DE CONFLICTOS

Artículo 172.- Las diferencias o cuestiones litigiosas que puedan plantearse entre la Federación y sus federados/as o miembros o entre estos serán resueltas por medio de arbitraje en Derecho, en los términos establecidos en la legislación vigente, Estatutos de la Federación Vizcaína de Balonmano y en el Reglamento de desarrollo.

Artículo 173.- Las diferencias o cuestiones litigiosas susceptibles de ser resultas mediante arbitraje o, en general, resolución extrajudicial de conflictos, serán sometidas al Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo.

Artículo 174.- Los/as miembros de la Federación que, en el plazo de un mes a contar desde la fecha en que obtenga licencia, no renunciaren expresamente se supone quedan sometidos al sistema de arbitraje y resolución extrajudicial de conflictos previsto en los Estatutos Federativos y en el Reglamento de desarrollo.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Kirol Zuzendaritza Nagusia
Kirol Zerbitzua
Departamento de Cultura
Dirección General de Deportes
Servicio de Deportes

XIV. TITULUA. DOPIN KONTROLA

175. artikulua.- Bizkaiko Eskubaloi Federazioak Euskal Eskubaloi Federazioarekin batera egingo du lan, kirolean substantzia eta talde farmakologiko debekatuak eta arauz kontrako metodoak erabiltzen ez direla prebenitzeko eta kontrolatzeko eta, erabiltzen badira, haien erabilera erreprimitzeko, ekainaren 11ko 14/1998 Legearen, Euskadiko Kirolaren, V. Kapituluan ezarri eta arautzen denaren arabera.

TITULO XIV. CONTROL DE DOPAJE

Artículo 175.- La Federación Vizcaína de Balonmano colaborará con la Federación Vasca de Balonmano en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a lo dispuesto y reglamentado en el Capitulo V. De la Ley 14/1998 de 11 de junio, del Deporte del País Vasco.

XV. TITULUA. JARRAIPEN BATZORDEA

176. artikulua.- Bizkaiko Eskubaloi Federazioak, bere estatutuen arabera, nahi beste batzorde eta antzeko organo era dezake, nahi duenean, bai federazioaren kirol-jardunaren sektore bat garatzeko direnak, bai eta federazioa osatzen duten talde edo estamentuen funtzionamenduari lotuta daudenak ere.

TITULO XV. COMITÉ O COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

Artículo 176.- La Federación Vizcaína de Balonmano, de conformidad a sus propios Estatutos, podrá constituir cuantos comités y demás órganos análogos considere oportuno, tanto aquellos que respondan al desarrollo de un sector de la actividad deportiva de la Federación, como los que atiendan al funcionamiento de colectivos o estamentos integrantes de la Federación.

177. artikulua.- Batzordearen definizioa, funtzionamendua, eskumenak eta prozedurak Araudian bertan zehaztuko dira: araudi hori batzordea eratzen den unean formalizatu behar da.

Artículo 177.- Su definición, funcionamiento, competencias y procedimientos vendrán determinado en el propio Reglamento, que deberá formalizarse en el momento de su constitución.

1. KAPITULUA. JARRAIPEN BATZORDEA DESEGITEA

178. artikulua.- Honako arrazoi hauek egongo dira Jarraipen Batzordea desegiteko:

1.- Batzordea osatzen duten alde guztien erabakia.

CAPÍTULO 1º. DE LA DISOLUCIÓN DEL COMITÉ O COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

Artículo 178.- El Comité o Comisión de Seguimiento se disolverá por las siguientes causas:

1º.- Por acuerdo de todas las partes integrantes.

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

Alameda Rekalde, 30-1º • 48009 Bilbao
Tel.: 94 406 87 80 • Fax: 94 406 87 64

2.- Batzordea eratzea eragin zuen proiektua edo programa amaitzea.

2º.- Por la finalización del proyecto o programa, para el que fue constituido.

2. KAPITULUA. ZEHAPEN-ARAUBIDEA

CAPÍTULO 2º. RÉGIMEN SANCIONADOR

179. artikulua.- Jarraipen Batzordeak klubei ematen dizkien jarraibideak nahitaez bete beharrekoak dira.

Artículo 179.- Las instrucciones que el Comité o Comisión de Seguimiento efectúe a los Clubes serán de obligado cumplimiento.

180. artikulua.- Klub batek ez baditu eman zaizkion jarraibideak betetzen, Jarraipen Batzordeak ez betetzea jakinaraziko dio federazio barruan dagokion erakundeari.

Artículo 180.- La falta de observancia por un Club de las instrucciones recibidas, dará lugar a que el Comité o Comisión de Seguimiento comunique el incumplimiento al organismo federativo correspondiente.

181. artikulua.- Arestian adierazi diren arrazoiak direla-eta zigor bat ezartzeak ez du espedientea eragin zuten jarraibideak betetzetik salbuetsiko klub hori.

Artículo 181.- La sanción que se pueda imponer a un Club por los motivos referidos anteriormente, no le eximirá de cumplir con las instrucciones que hubieran dado lugar al expediente.

XEDAPEN GEHIGARRIA

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Bizkaiko Eskubaloi Federazioak beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarri behar ditu lehiaketa guztiak programatutakoaren arabera egin daitezen, eta horretarako, eta salbuespen modura, indarrean dagoen araudia aldatzeko ahala izango du, betiere eskuratutako eskubideei kalterik eragiten ez bazaie.

La Federación Vizcaína de Balonmano / Bizkaiko Eskubaloi Federazioa pondrá todos los medios necesarios para que las competiciones puedan desarrollarse según su programación, teniendo para ello la potestad de modificar excepcionalmente la normativa vigente, siempre que no perjudique derechos adquiridos.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Indargabeturik eta baliorik gabe geratu dira araudi honetan ezarritakoaren kontrako arauzko xedapenak, zirkularrak eta lehiaketako oinarriak.

Quedan derogadas y sin valor alguno todas las disposiciones reglamentarias, circulares y bases de competición que se opongan a lo establecido en el presente Reglamento.

AZKEN XEDAPENA

DISPOSICIÓN FINAL

Araudi hau Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

El presente Reglamento entrará en vigor al día siguiente de su inscripción en el Registro de Entidades Deportivas.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes